

## **ZARATAK ETA DARDARAK SORTUTAKO POLUZIO AKUSTIKOARI AURRE EGITEKO UDALAREN JOKABIDEA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA**

Zaratak eta dardarek herritarrengan sortzen dituzten eragozpenei aurre egiterakoan eta herritarrek babesterakoan, Udalaren jokabidea bideratzen zuen araua eguneratzeko beharra agerikoa da, batez ere egundaino indarrean egon den arautegian, eguneroko bizitzako egoerei aurre egiterakoan hutsune nabarmenak agertu direlako.

Gaur egun gizartearen sentiberatasunak erakundeei exijitzen die, geroz eta indar handiagoz gainera, lasaitasuna, atsedena eta ongizaterako aukera eman dezakeen hiri inguruneaz gozatzeko eskubidea berma dakien.

Lurraren Jardunaldian, 1992an Rio de Janeiron (Brazil) sinatu zen Agirian, 21-Agenda hain zuzen ere, jasotzen ziren ordurako, poluzioa murriztera zuzendutako arauak, osasunak eta ingurugiroak pairatzen dituen arriskuak murriztera, alegia; eta, horien artean, zarata-maila maximo onargarrietarako mugak finkatzeko eta zarataren ebaluazioa eta kontrola ezartzeko neurriak finkatzeko irizpideak.

Hori guztiagatik derrigorrezkoa da poluzio akustikotik eratorritako arazoak arautzea, soinu-giroa nahas ditzaketen jarduerak eta instalazioak izan behar dituzten betekizunak zehazteko, batetik eta bestetik, sortzen diren eragozpenei amaiera emateko, hainbatetan izaera psikologikoko eta familiarreko gorabeherak eta laneko gaitzak sorrarazten baitizkiete arazoa jasaten dutenei.

Jarduera gogaikarri, osasunkaitz, kaltegarri eta arriskutsuen Erregelamenduak, azaroaren 30eko 2414/1961 Dekretuak onartzen duena, jarduera gogaikarritzat jotzen du edozein ez-erosotasun sortzen duen jarduera, zaratak eta dardarak eragin dezakeen ez-erosotasuna, bestalde. Dena den, Erregelamendu hau nahiko zaharkitua geratu da, onartu zenez geroztik iragan den denbora tarteko.

Era berean, ekainaren 11ko 171/1985 Dekretuak, bizitegi-zonako lurzoru hiritarrean kokatzen diren jarduera gogaikarri, osasunkaitz, kaltegarri eta arriskutsuetan aplikatu beharreko neurri zuzentzaileak ezartzen ditu, eta horien artean, jarduera horietako zarata eta/edo dardarak eragindako gogaikarritasuna murriztera zuzendutako neurriak.

Beranduago, otsailaren 27ko 3/1998 Legeak, Euskal herriko Ingurugiroa Babesteko Lege orokorrak, bere Bigarren Idazpuruan ingurugiro baliabideen babespenaren gaia jorratzen du eta zarataren eta dardararen aurkako egintzak jasotzen. Era berean, Autonomia Erkidegoko Udalei egozten die ordenantzak erabakitzeko eskumena eta, bide batez, bere lurralde-plangintzan kalitate-helburuak, mugako balioak eta atalase-mailak onartzeko tresnak jasotzeko ahalmena; eta, horrenbestez, poluzio-maila altua nabaritu den lurzoruen erabilera murrizteko eta soinu-iturri berrien ezarpena mugatzeko tresnak jaso ahal izan dira.

Bide batez, Hirugarren Idazpuruan, Lege honek, sailkatutako jardueren instalazio-erregimenari ekiten dio eta, hala, pertsonentzako edo bere ondasunentzako gogaikarria edo arriskutsua izan daitekeen ezein jarduera edo instalazio pribatu zein publiko burutzeko behar diren lizentziak emateko prozedura eguneratzen du.

Beraz, zarataren eta dardaren kontrola, ingurugiroari buruzko arau desberdinek Udalei egozten dien erantzukizuna da eta, bide batez, behar diren tresnak jarri, hala araukoak nola giza eta material baliabideak erabiliz, bereganatu behar dutena; horrela, gizakiaren osasunarentzat kaltegarriak diren ekintzak ekidin, aurrekusi edo murriztu baitaitezke, herritarren eta ingurugiro osoaren sosegua irabaziz.

Logikoki, Arauak egiteko ahalmena erabiltzea, udal autonomiaren agerkaria izateaz gainera, toki-korporazioei egozten zaizkien ahalmen orokorrak garatzea eta egokitzea dakar berarekin, eta hala udal ordenantza, maila goragoko arautegiarekin bat etorritik, arauketa harmonikoa izan behar du.

Berritasun adierazgarrienen artean aipatzekoak dira, gaur egun baimenduta dauden zarata eta dardara maila maximoen aldaketa, udal arautegian inmisio-muga berriak erabakiz; eta sartu mota honetako poluzioaren kontra jarduten duten udal zerbitzu teknikoaren esperientziaren ondorioz egoki iritzi direnak sartu dira; bestalde, legez kanpo funtzionatzen duten jarduera eta instalazioen aurka esku hartze bizkor eta eraginkorra ahalbideratzeko beharrezko diren baliabide juridikoak egituratu dira; eta, azkenik, kontrolerako formula berriak ezarri dira, batetik poluzio akustikoko iturriak ezagutzeko bide izango direnak -eta horrela dagozkion neurri zuzentzaileak ezarri ahal izango dira-, eta bestetik, arau honen xede diren gaietan instalazioak modu zuzenean egiteko berme gisa, bai eta jarduera horien sustatzaileentzako ere.

Aipatutako azkeneko neurri-mota hauen arrazoa, egiaztapen eta ikuskaritza eta neurri zuzentzaileak kalifikatzeko eta ezartzeko udalaren eskuduntza izanik, «aldi jarraitu» gisa sailkatzen diren lizentzi motei aplikatzeko aukera da; eta hain zuzen ere, ikuskapen jarduera hori eraginkorra izan dadin, batez ere lizentziaren betekizunen arloan izan daitezkeen desbideraketak detektatzeko eta zuzentzeko garaian, eta hala, zaraten jaurtikipena eta inmisioa detektatzeko, kontroleko gailu iraunkor eta automatikoak instalatu behar dira.

Zigor-erregimenari dagokionean, gorago aipatutako 3/1998 Legean oinarritutako erregimena ezartzen da; bere Bosgarren Idazpuruan, ingurugiro-diziplinari buruzkoan, ingurugiro-erantzukizuna eta zigor erregimena arautzen baita modu konbinatu eta elkarren menpekoan.

Arau-hauspenen erregimenak arau-hauste oso larrietatik arinetara bitarte sailka daitezkeen jarrerak jasotzen ditu, eta, era berean, zigorrak finkatzen ditu, arau-hauste mota bakoitzaren barneko eskalak eginez.

Ordenantza honetan egiten diren arau-hauspen eta zigorren aurreikuspenak aipatutako arauetan jasotzen diren xedapenen zehaztapena da eta ez dute berrietan edo beste arauetan ezarritako zigor-erregimena mugatzen.

Goiko guztia kontuan hartuta, ondoko ordenantza onartu eta argitaratu da.

## AURKIBIDEA

- I. IDAZPURUA. XEDAPEN OROKORRAK (1-6 art.)
- II. IDAZPURUA. ZARATA KOMUNITATEAN. (7-13 art.)
- III. IDAZPURUA. IBILGAILUEN ZARATA (14-17 art.)
- IV. IDAZPURUA. ERAIKUNTZA BERRIKO ERAIKINAK (18. art)
- V. IDAZPURUA. JARDUERA SAILKATUAK (19-24 art.)
- VI. IDAZPURUA. MAKINERIA ETA JARDUERA-INSTALAZIOAK (25 art.)
- VII. IDAZPURUA. IKUSKARITZA AUTOMATIKOA EGITEKO TRESNAK (26-34 art.)
- VIII. IDAZPURUA. ERREGIMEN JURIDIKO ADMINISTRATIBO OROKORRA (35-49 art)
- IX. IDAZPURUA. ZEHAPEN ERREGIMENA. (50-57 art.)

### XEDAPEN GEHIGARRIA

### XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehenengoa  
Bigarrena

### XEDAPEN INDARGABETZAILEA

### AZKEN XEDAPENA

## I. IDAZPURUA XEDAPEN OROKORRAK

### *1. art. Xedea.*

1.Ordenantza honen xedea da ingurunearen kalitatea babestea eta hobetzea, kanpoko zein barneko guneetan sortzen diren zaratek eta dardarek eragindako poluzio akustikoaren aurrean eta, hala, mugak ezarri eta xedea betetzeko egoki iritzi diren teknikak erabaki dira; eta hala, besteak beste, jarduera gogaikarri, osasunkaitz, kaltegarri eta arriskutsuen Erregelamenduan eta otsailaren 27ko 3/1998, Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko Lege Orokorrean eta pertsonen osasunerako edo ongizatean gogaikarri edo arriskutsu izan daitekeen beste edonolako jarduera edo jarrera arautzen da.

### *2. art. Atmosferaren poluzioa.*

1.Ordenantza honen ondorioetarako, zarata, atmosferaren elementu poluzitzaile dela iritziko da, beti ere, Atmosfera-Ingurumenaren Babespenerako 38/1972 Legean, abenduaren 22koa, eta 3/1998 Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko Lege Orokorrean, otsailaren 27koa, jasotzen den eran.

### *3. art. Aplikazio eremua.*

1.Ordenantza hau Mutrikuko udal-barruti osoan aplikatuko da.

2.Ordenantza honen esparru arautzailearen barruan sartzen dira, ingurugiroaren egoera naturala, zaratekin eta/edo dardarekin alda dezaketen jarduera, instalazio eta portaera guztiak, arduraduna eta gertatzen diren tokia, publikoa zein pribatua, irekia zein itxia, edozein delarik ere.

3. Nolanahi ere, Udalak salbuets dezake Ordenantza honen betetzea ondorengo kasuetan, baina behin behineko izaeraz eta ingurune jakin batzutan bakarrik:

—Interes publiko eta sozialeko eta izaera ofizial, kultural, jai- eta erlijio-giroko eta mota honetako bestelako ekintzak.

—Edozein motatako jai tradizionalak direla-eta, antolatzen diren ikuskizun publikoak eta jolas-jarduerak; nolanahi ere, arauketa berezia izango dute.

—Denbora jakin bat iraungo duten lanak, eraikuntza, konponketa edo eraikinak eraisteko obrak, ekipo elektrogenoak, eta abar, bai eta gaueko orduetan bide publikoan egin behar diren lanak ere.

—Alarma, larrialdi edo guztien interesa tarteko sor daitezkeen egoera bereziak.

Salbuespen berezi hauek Udalak baimendu behar ditu espreski, eta eman behar duen lizentzian exekuzio-epea, ordutegia eta ingurune inpaktua gutxiena izan dadin egokien irizten dituen gainontzeko baldintzak zehaztuko dira.

4. Hirigintza planeamenduko lanetan eta zarata eta/edo dardara sor ditzaketen mota orotako industriak, jarduerak eta instalazioak kokatzerakoan, izan dezaketen eragina azaldu beharko da; eta horretarako, espreski egin beharko den inpaktu akustikoaren azterketa xehekatu batean jaso beharko dira, erabakitzen diren plangintzek eta/edo hartzen diren konponbideek bizitza kalitaterik eta ingurugiroarenganako errespetu mailarik handiena eman dezaten.

5. Inpaktu akustikoaren azterketa hori, nolanahi ere, zenbait plan eta proiektuk berez eskatzen duten ingurugiro-inpaktuaren ebaluaketaren inguruan aplikagarri den eta indarrean dagoen arautegian ezarritakoaren kalterik gabe egin beharko da, batez ere hirigunetik gertu dauden industri guneeetan, eta kasu honetan Europar zuzendaritzak proposaturiko mugak ezarriko dira.

#### *4. art. Udal eskumena.*

1. Udal honi dagokio Ordenantza honetan jasotzen dena betetzen den zaintzea, behar diren neurri zuzentzaileak har daitezen exigitzea, mugak ezartzea, beharrezko irizten diren ikuskapenak exigitzea eta, betetzen ez den kasuetan, dagozkion zigorrak aplikatzea.

#### *5. art. Bateragarritasuna bestelako eskuhartzeekin.*

1. Ordenantza honetan ezartzen den erregimena, Administrazioako bestelako erakundeei, beren eskumenen barne, legozkiekeen eskuhartzeen kalterik gabe ulertu behar da.

#### *6. art. Neurriak hartzeko derrigorrezkotasuna.*

1. Poluzio akustikorik eragiten den ezein guneko titularrak behartuta daude aplika daitezkeen mailak betetzeko beharrezko diren neurriak hartzera, inolako errekerimendu edo norbanakoari lotutako beste ezein administrazio-egintza exigitu behar izan gabe.

## II. IDAZPURUA ZARATA KOMUNITATEAN

#### *7. art. Hainbat jarduera.*

1. Bide publikoan eta jendea biltzen den zonalde publikoetan (plazak, lorategiak, eta abar) edo eraikinen barneko aldeetan, elkarbizitzak eta gainontzekoenganako errespetuak behar duen muga barne eutsi behar zaio zaratari.

2. Aurreko pasartean ezarritako agindua, batez ere, gaueko atsedean orduetan –22etatik 8ak arte– sortzen den zaratari lotzen zaio eta, batez ere, gizakiak egiterakoan edo pertsonak beren jarduera zuzena dela eta sortutako zaratari, etxabereek ateratako builari, etxetresnak eta bestelako aparailu elektrikoek eta musika-tresnei, klimatizazio eta/edo aireztapen instalazioek eta mota honetako aparailuei egiten die erreferentzia.

Jaiegunetan eta asteburuetan (ondorio hauetarako ostiralak, larunbatak eta jai-bezperak) gaueko ordutegia 23,00etan hasiko da eta jaietan ez da hurrengo goizeko 9,00ak arte amaituko.

#### *8. art. Betebeharrak.*

1. Aurreko artikuluan zehazten diren zaratei dagokionean, gaueko atsedean orduetan ezingo da:

—Deiadarka aritu edo goraki hitz egin.

—Bizilagunei nekeak sor dakizkiekeen etxeko lanak edo konponketak egin.

—Propaganda, dei egiteko, abisu emateko, dibertimendu edo bestelako xederik duen ezein soinu-tresnarik erabili,

—eta, oro har, bizilagunen atsedena eragotz ditzaketen zaratarik eta/edo dardararik sortu.

2. Etxabereak dituztenak derrigortuta daude, etxabereen portaeraren eraginez bizilagunen lasaitasuna eragotz dezakeen edozein arrazoi ekiditeko behar diren neurri guztiak hartzera.

Beraz, ezingo dira, beren zaratarekin bizilagunengan gogaitasuna sor ditzaketen etxabereak patioetan, terrazetan, galerietan, balkoietan eta beste ezein gune irekitan eduki.

Atal honetan jasotakoa betearazteko, animaliak edukitzeko eta babesteko udal ordenantza kontuan hartuko da.

3. Bide publikoan eta jendea bil daitekeen espazio publikoetan ezingo dira musika tresnak edo audio-ekipoak erabili, ez eta publizitate-mezurik egin edo zaratarik eta/edo dardararik sor dezakeen beste ezein jarduera, beti ere, espreski baimendurik ez badago.

#### *9. art. Bizilagunen arteko salaketak.*

1. Bizilagunen arteko gogaitek Jabetza Horizontaleko Legean daukate bere arauketa juridikoa. Eta Udalak, salaketa izanez gero, bere esku izan ditzakeen frogak eta neurketak eman ahal izango dizkie interesatuei.

#### *10. art. Zamalanak.*

1. Merkatalgaien zamalanak, kaxen, edukinontzien, eraikuntza materialen eta antzekoen maneiulanak, bizitegi-ingurutako bide publikoetan, 7,00etatik 22,00ak arte bakarrik egin ahal izango dira, beti ere, Udalak emandako baimen espresurik ez badago; nolana ere, arrazoi zurigarriak tarteko, ordutegi hori murriztu ahal izango da jarduera eta inguru jakin batzutan.

2. Merkatalgaien zamalanetan diharduen pertsonalak arreta berezia izan beharko du inpaktu zuzenik ez sortzeko eta, aldi berean, ibilbidean zehar zama lekuz aldatzerakoan dardarak sor dezakeen zarata ekiditen ahaleginduko da.

3. Mota honetako lanek sor dezaketen gogaita ahalik eta gehien gutxitzeko behar eta egoki diren neurri zuzentzaileak har daitezten exigitu ahal izango du eta, zehazki, derrigorrezkoa izango da, bere ibilbidean zarata leuntzeko, gurpil pneumatikoko eskorga edo orgak erabiltzea.

#### *11. art. Lanak bide publikoan eta eraikuntza-obra.*

1. Denbora jakin bat iraungo duten obrek, hala eraikuntza eta konponketa lanak edo eraikinak botatzekoak, nola bide publikoan egiten diren gainontzekoak, ezingo dira egin 22,00etatik 8,00ak arte eta jaiegunetan egun osoan, beti ere Udalak emandako baimen espresurik ez badago.

2. Etxebizitzetan edo lokalen barne egin beharreko lanak 9,00etatik 19,00ak bitarte egin beharko dira eta, nolana ere, jaiegunetan ezingo dira, zaratarik edo dardarak direla-eta, bizilagunak gogait ditzaketen lanak egin.

3. Zaratak eta/edo dardarak bizilagunengan sor ditzaketen eragozpenak gutxiagotzeko neurri zuzentzaile egokiak hartuko dira.

4. Garbiketa publikoko eta zabor bilketako lanak egiterakoan, herritarren lasaitasuna asaldatzeko maila minimora jaisteko behar den ardura izango da.

#### *12. art. Alarmak.*

1. Alarma-aparailuak edo larrialdien seinaleztapenerakoak behar bezala homologatuta egon eta modu egokian funtzionatu beharko dute.

2. Kanpoko aparailuak, hala ohartarazle akustikoak nola optikoak, harremanetarako telefono bat izan beharko dute eta erabakirik egokiena bere bidez hartzeko aukera emateaz gainera, mantenimenduko enpresaren izena eta telefono zenbakia erakutsi behar dute.

3. Alarma sistema baten funtzionamendu ez-egokia gogaikarri denean bizilagunentzat eta arduraduna agertzen ez bada, edo aurreko pasarteaz ezarritakoa ez bada betetzen, horren berri arduradunari ezin jakinaraziz, aparailua desaktibatu egingo da eta ekintza honek ez du inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik sortuko. Aldiz, lan hori egitearen kostua instalazioaren titularrari egotziko zaio.

Alarma sistema baten funtzionamendua ez-egokia izango da, alarma martxan jartzeko inolako arrazoirik egon gabe bere kabuz aktibatzen denean.

4. Aurreko pasartean aurrikusitako neurriaz gainera dagokion zehapena ezarri ahal izango da, beti ere, gogaita jabeari edo enpresa instalatzaileari edo hornitzaileari egotz dakiokkeen ekintzen ondorio bada eta, besteak beste, sistemaren instalazio kaskarraren edo egoera onean edukitzeko eta mantentzeko lanik ez egitearen ondorio bada funtzionamendu oker hori.

*13. art. Salbuespenak.*

1. Ordenantza honek arautzen duenetik kanpo geratzen dira, besteak beste honakook, desordena publikoak, asaldadurak, merkataritza zein jolas guneean bildutako jendearen metaketak eragindakoak, eta abar.

### III. IDAZPURUA IBILGAILUEN ZARATA

*14. art. Trafikoak sortutako zarataren arauketa.*

1. Motoredun ibilgailu guztiak egon behar dute funtzionamendu egoera onean, hala zirkulazioan doanean nola geraldian, zarataren mailak ez dezan indarrean dauden arautegi aplikagarriak edo ondorengo aldaketek ezartzen dituzten gehienezko mailak gainditu.

*15. art. Debekuak.*

1. Debekaturik dago ibilgailu motoredunak eta ziklomotoreak ihes-tutu librearekin ibiltzea, hau da, motorearen eztanda isiltzeko derrigorrez behar duten gailurik gabe edo isilgailua osatu gabe, isilgailu ez-egokiekin edo narriatuekin ibiltzea.

2. Debekaturik dago ibilgailuen abiadura behartzea, beharrezko ez diren azelerazioen ondorioz zarata gogaikarria sortuz.

3. Debekaturik dago bozina edo beste ezein seinale akustiko erabiltzea hiri barnean, beti ere, kolpaketa edo istripu arrisku larrien kasuan eta larrialdi zerbitzuen eta lehenetasuna duten ibilgailu publiko zein pribatuen kasuan salbu.

Nolanahi ere, lehenetasun hori duten ibilgailuetako gidariak argi-seinaleztapena erabili beharko dute nagusiki, baina beti ere, seinale akustiko bereziak ez erabiltzeak gainontzeko erabiltzaileentzako arriskurik sortzen ez duenean.

4. Komenigarri irizten den kasuetan eta herritarren ingurugiro-kalitatea zaintzeko xedez, Udalak, Ordenantza honetan ezarritakoaren arabera, zarata-maila altuak sortzen diren zonaldeak edo zirkulaziorako bideak babes ditzake, beti ere ibilgailuen trafikoak sortzen duenean; eta horretarako trafikoaren ordutegia, abiadura edo ibilgailu mota desberdinen zirkulazioa murrizteko arauak eman ahal izango ditu.

*16. art. Ibilgailuen kontrola.*

1. Gidari guztiek dute ibilgailuak egiten duen zarata maila kontrolatzeko udaltzainek egin ditzaketen frogak egiteko obligazioa. Era berean, eta ondorio hauetarako, izaera orokorreko kontrol prebentiboak egin ahal izango dira Udal honek erabaki ditzakeen programei jarraiki.

2. Behin dagokion proba egin ondoren, ibilgailu horri legokiokeen zarata maila 6 dB(A) edo goragokoa denean, salaketa egingo zaio, baina atzemandako irregulartasuna konpontzearen baldintzapean.

Kasu honetan, ibilgailuaren titularrak 15 lanegunetako epea izango du, sumatutako hutsuneak konpontzeko baimendutako ezein konponketa-lantegi batetan.

Irregulartasuna konpondu dela egiaztatzen denean, konponketa egin zuen lantegiak emandako ziurtagiria aurkeztuz edo subsidiarioki udaltzaingoak zarata kontrol bat berriz burutuz, salaketa kenduko zaio, beti ere titularrari, arrazoi berdinatik jarri zitzaion beste salaketarik aurretik kendu ez bazaio.

3. Udaltzainek ibilgailua ibilgetu dezakete, gidariak zarata-kontrolako frogak egiteari uko egiten dionean, edo ihes-tutu librearekin, isilgailu narriatuarekin edo ihes-tutu ez-homologatuarekin dabilenean edo, arrazoa edozein delarik ere, erreferentziazko mailetatik gora 6 dB(A)-ko zarata maila ateratzen duenean; eta kasu hauetan guztietan, dagokion salaketa egingo da.

4. Ibilgailuan aurkitutako hutsegiteak direla-eta ibilgetzen denean, Udaltzainek ibilgailuaren zirkulaziorako baimena edo lizentzia bahituran har dezakete, bere ordez, gutxienez ibilgailuaren matrikula eta lehen matrikulazioko data jasoko duen agiri bat emanaz.

Kasu honetan, ibilgailuaren titularrak 10 lanegunetako epea izango du aurkitu zaizkion hutsuneak konpontzeko, eta hori baimendutako Ibilgailuen Azterketa Teknikoko (IAT) edo baimendutako konponketako edozein lantegitan egin ahal izango du, baina beti ere, narriatutako elementuari edo multzoari mugatuko zaio konponketa.

Salaketaren jatorri izan den hutsegitea konpondu dela egiaztatzen denean, ikuskaritza teknikoaren txosten ofiziala aurkeztuz edo berrikuskapena egin zuen lantegiaren ziurtagiriaren bidez, bahituran hartu zitzaion zirkulazioko baimena edo txartela itzuliko zaio.

#### *17. art. Ziklomotore eta motozikletetako frogak.*

1. Mota honetako ibilgailuek ateratzen duten zarata kontrolatzeko, udaltzainek kontrolak jarriko dituzte bide publikoan, eta ezarritako mugetatik gora egon daitezkeen ziklomotoreak eta motozikletak geraraziko dituzte.

2. Ziklomotore eta motozikleta hauek ateratzen duten zarata modu erraz batean eta bide publikoan egiaztatzeko, froga ibilgailua geratuta dagoela egingo da eta dagokion eranskinean jasotzen den moduan egingo.

3. Neurketaren emaitza ondorengo erreferentzia mailekin konparatuko da, beti ere  $\text{cm}^3$ -tan adierazitako zilindradaren arabera.

Ibilgailua	Zilindrada	dB (A) balioa
Ciclomotores	50 c.c.	92
	80 c.c.	96
Motocicletas	> 80 c.c. y < 175 c.c.	98
	> 175 c.c.	101

## IV. IDAZPURUA ERAIKUNTZA BERRIKO ERAIKINAK

#### *18. art. Eska daitezkeen betekizunak.*

1. Eraikin guztiek bete beharko dituzte Eraikuntzarako Oinarrizko Arauan jasotzen diren eraikinen baldintza akustikoei buruzko zehaztapenak, eta/edo Eraikuntzaren Antolamendurako azaroaren 5eko 38/1999 Legearen arabera, zarataren aurka babesteko bestelako betekizun guztiak edo berau alda dezakeen beste ezein.

2. Era berean, kontutan izan beharko dira Eraikuntzaren Ordenantza Osagarriak eta bestelako hirigintzako udal arauak.

3. Udalak eraikin orok bete behar dituen baldintza akustikoak betetzen direnaren ziurtagiriak exigi ditzake behin obra zibila amaitu eta «tokian bertan», eraikuntzaren lehen okupaziorako baimena eman aurretik.

4. Eraikinetako ur, aireztapen, klimatizazio, garraio eta elektrizitateko instalazio eta ekipo komunitarioak, zarata edo dardara sor ditzaketanak, alegia, Eraikuntzarako Oinarrizko Arauaren, eraikinetako baldintza akustikoei buruzko baldintzak, edo ordezkia dezakeen beste baten indarrez exigi daitezkeen betekizunen arabera instalatuko dira

## V. IDAZPURUA JARDUERA SAILKATUAK

### *19. art. Eska daitezkeen betekizunak.*

1. Zaratarik eta/edo bibrazioirik sor ditzaketen jarduerak edo elementuak bere baitan hartzen dituzten esparruetan jartzen diren eraikuntza, insonorizazio edo dardaren kontrako elementuek isolamendu balio egokiak izan beharko dituzte eta, ondorioz, kanpora zein etxebizitzaren edo beste lokal edo barrutietara jaurtikitzen den zarata edo dardarak ez dute Ordenantza honetan zehazten diren mugako balioak gaindituko.
2. Horretarako, mota horretako lokalek, beharrezkoa izango balitz, behartutako aireztapen sistema bat izango dute, edozein bao edo kanpora ematen duen leiho erabat ixteko aukera emango duena zarata eta/edo bibrazioak sortzen duen jarduerak irauten edo elementuak funtzionamenduan dauden bitartean.
3. Ostalaritza industria jarduerak eta ikuskizun publikoetakoak (edaritegiak, kafetegiak, jatetxeak, elkarte gastronomikoak, pubak, dantzalekuak, eta antzeko jarduerak), merkatari-tzakoak (supermekatuak, harategiak, arrandegiak, okindegiak, eta abar), jolas-erabilerakoak (gimnasioak eta joko eta aisialdirako aretoak, bilarrak, futbolinak, mini-golf eta antzeko jarduerak dituztenak) musika edo dantza akademiak, musika-ekipoa izateko edo ikuskizunak antolatze baimenak dituztenak eta, oro har, arau honetan jasotzen diren zarata mailatik gorako neurriak inpaktu bidez sor ditzaketenak eta, aldi berean, bizilagunak dituzten eraikinetan kokatzen direnak, lurzoru flotantea izan beharko dute, zoruarekin edo forjatuarekin eta kokatzen diren eraikineko egiturako bestelako elementuekin inolako loturarik izan gabe.

### *20. art. Isolamendu akustikoa.*

1. Bizilagunak dituzten eraikinetan, zarata eta/edo dardara gune izan daitezkeen instalazio edo jardueren eta ondoko esparruen artean insonorizaziorako tratamendu egoki bat egongo da eta, arau orokor gisa, eguneko ordutegian (8,00etatik 22,00ak arte) burutzen diren jardueretan airetiko zarataren isolamendu minimoa 55 dB(A)-koa izango da eta 65 dB(A)-koa gaueko ordutegian (22,00etatik 8,00ak arte) burutzen diren jardueretan, bai eta jarduera hori inoiz edo aldi berean behin burutzen bada ere.
2. Ikuskizun publikoen eta jolas-jardueren kategoriaren barne sartzen diren jarduerak ondoren zehazten diren isolamendu minimoa izango dute airetiko zarataren aurka.
  - a) Ostalaritza eta ikuskizun publikoetako lokalak:
    - 55 dB(A) jatetxearen jarduera izan gabe elikagaiak eta alkoholik gabeko edariak saltzeko baimena duten lokaletan eta instalazioetan (1. multzoa).
    - 65 dB(A) jatetxe jarduera burutzeko edo edari alkoholdunak saltzeko baimena duten lokaletan eta instalazioetan (2. multzoa).
    - 70 dB(A) musika ekipoa izateko baimena baina dantzarako pistarik ez duten lokaletan eta instalazioetan (3. multzoa).
    - 75 dB(A) musika ekipoa eta dantzarako pista edo ikuskizunak antolatze baimena duten lokal eta instalazioetan (4. multzoa).
  - b) Joko-aretoak:
    - 65 dB(A) aisialdiko aretoetan (1. multzoa).
    - 65 dB(A) joko-aretoetan (2. multzoa).
    - 75 dB(A) bingo-aretoetan (3. multzoa).
    - 75 dB(A) joko-kasinoetan (4. multzoa).
3. Kirol eta aisialdiko jarduerak burutzen diren lokalek, hala nola, akademiak, gimnasioak, aisialdi eta gizarte arloko zentroak, jubilatutako elkarteak eta abar, edota ikastetxeak, zein kantua, dantza eta/edo musika akademiak airetiko zarataren aurkako isolamendu minimoa 65 dB(A)-koa izango dute, beti ere, bizilagunak dituzten eraikinetan kokatzen badira.
4. Musika edo giza ahotsa goratzeko aparatuak instalatzen diren lokalek, zinemak, antzokiak, auditorioak, hitzaldi-aretoak, erlijio-gurtzarakoak, eta abar, airetiko zarataren aurkako isolamendu minimoa 70 dB(A)-koa izango dute, beti ere, bizilagunak dituzten eraikinetan kokatzen badira.
5. Aurreko ataletan jasotzen ez diren jardueren gehien egokitzen zaien isolamendu akustikoa exigi ahal izango zaie, beti ere, jarduera motaren eta funtzionamendu moduaren arabera, eta onartzen diren mugak ez gainditzeko xedez.



6.Froge bidez lortzen den zaraten jaurtikipen maila, dagokion eranskinean zehazten den eran, ezingo da 40 dB(A)-tik gorakoa izan goiko edo aldamenetako etxebizitzetan.

7.Artikulu honetan exigitzen diren isolamendu baloreak, hau da airetiko zarataren eta inpaktuen zarata-mailari aurre egitekoak, etxebizitzak izango ditu erreferente beti.

Aipatutako jardueren inguruetan bestelako eremuak egongo balira eta beren erabilera etxebizitza izan gabe beste bat badute, isolamendu akustikoaren beharra 10 dB(A)tan jaitsiko da, ondoko lokal horren erabilera egoitzakoa ez bada (eskailera-kaxa, atariak, atarteak edo sarrerako korridoreak) edo egoitza erabilerako ingurutan eraikinaren parte horiek guztienak direnean eta guztientzako zerbitzuak jasotzen dituzten lokalen edo barneko patioen kasuetan; eta 20 dB(A)tan murriztuko da kanpoko jarduerak eta barnekoak ez diren patioak bereizten dituzten fatxadetan.

Era berean, kasu hauetan eta neurketa bidez lortutako inpaktuen zarata mailaren exigentziari 10 dB(A) gehituko zaizkio.

8.Zarata eta/edo dardara sortzen duen jarduera burutzen den lokalak inguruan, bertan sortutako zarata eta/edo dardara atzeman dezaketen beste batzuk baditu, airetiko isolamendu akustikoaren eta inpaktuen zarata-maila, inmisio-egoera txarrean dagoen eremu harekiko exigituko da.

9.Nolanahi ere jarduera hauen kasuan, isolamendu akustikoaren obrak amaitu orduko eta lokalaren dekorazioari ekin aurretik, dagokion eta lortu nahi den isolamendu akustikoko egiaztapena egiteko gomendioa egiten da, beti ere eman zaion tratamenduaren eraginkortasuna egiaztatzeko eta, behin obra amaitu ondoren aldaketak egin beharrak sortzen dituen arazoak ekiditeko xedez.

10.Exigitutako isolamendu akustikoa lortzeko erabili behar diren materialek Eraikuntzako Oinarrizko Arauetan finkatzen diren baldintzak bete beharko dituzte, hau da, eraikinen suteen aurkako babespen baldintzak edo/eta ordezkari dezakeen beste ezein arauko baldintzak.

11.Zarataren jaurkiteta-fokoa elementu jakin bat denean, exigitutako isolamendu akustikoa aipatutako fokora mugatu ahal izango da, beti ere neurri horiekin ezarritako zarata-inmisorako mugak betetzen badira.

12.Exigitzen diren isolamendu balioak, zarata eta/edo dardara sor dezaketen lokaletako aireztapen bao eta mekanismoei ere lotzen zaizkie, hala neguan nola udan.

13.Nolanahi ere, isolamendua ezarritako balio minimoetara egokitzeko ardura izango duen subjektu pasiboa, zarata-iturriaren titularra izango da.

#### *21. art. Bertaratzen direnen babesa.*

1.Ikuskizun publiko zein aisialdiko jarduerak burutzen diren establezimenduetako erabilera publikoko zonaldeetan ezingo da inoiz 90 dB(A)-ko soinu-maila gainditu; beti ere sarbideetan ondorengo ohar hau jasotzen ez bada:

«Lokal honen barruan luzaroan egoteak, kalte iraunkorrak sor ditzake entzumenean».

Oharra, ondo ikusteko modukoa izango da bai dimentsioz, bai argiztapenez eta bi hizkuntzatan – euskaraz eta gaztelaraz – idatzita egongo da.

#### *22. art. Bizilagunen babesa.*

1.Ostalaritza eta ikuskizun publikoko jarduerak, soinu erreproduktzioarako ezein motako aparailuak dituztenak, (irratia, telebista, hari musikala, musika-ekipoa, eta abar) jardueran izan daitekeen soinu-mailaren sistema mugatzaile bat izan beharko dute, ezarritako mugak betetzen direla bermatzeko xedez.

Sistema mugatzaile horrek, Ordenantza honetan ezarritako zarata-inmisorako mugak gainditzea, hala barneko aldean nola kanpokoan, ezinezkoa egiten dela bermatu beharko du.

Aparailuaren soinu-maila maximoaren muga izango da, jarduerari berez etxebizitzekiko dagokion airetiko zaratarako isolamendu akustikoaren indizea 20 dB(A)tan gehitu ondoren ateratzen dena; beti ere gai honetan aplikatu daitezkeen goragoko xedapenek ezartzen dituzten mugak aplikatzearen kalterik gabe.

2.Musika-ekipoa izateko baimena duten jarduerak, zortzi hereneko bandetako igorpen mailara mugatu beharko dira. Kasu honetan, lokalean gainditu ezingo den soinu-maila orokor horretaz gainera, ekipoaren mugapena finkatuko da, lokalaren isolamendu-kurbari, zortzi hereneko banda bakoitzean, ondorengo kurba gehituz ateratzen dena, inola ere ezingo dela gainditu kontutan izanik:

Hz	50	63	80	100	125	160	200	250	315	400	500
dB	49,6	43,4	38,7	34,4	30,7	27,3	24,4	21,3	19,0	16,5	14,5

Hz	630	800	1000	1250	1600	2000	2500	3150	4000	5000
dB	12,8	11,3	10,0	8,9	7,7	6,6	5,7	4,9	4,2	3,5

3.Udalak, aurreko pasartean jasotzen ez den edozein jarduerari exigitu ahal izango dio, beti ere komenigarri irizten duen kasuetan, erreprodukzio aparailuaren mugapena egitea.

4.Ikuskaritza lanetan eta musika-ekipoa duten jardueren kontrola eraginkorragoak izan daitezten, Udalak erregistro sonometrikoko sistema bat bertan ezartzera behar dezake, denbora jakin batean jardueraren funtzionamenduari buruzko datuak jasotzeko, beti ere inoiz ez 15 egunetatik beherako epean.

### 23. art. Neurri zuzentzaileak.

1.Zarata kanpora zuzenean ez ateratzeko xedez, musika-ekipoa duten establezimenduen irteera guztietan, larrialdikoetan salbu, derrigorrezkoa izango da itxiera automatikoko ate bikoitzeko instalazio finko bat izatea, atarte hermetiko bat osatuz, 3. eranskinean zehazten denaren arabera.

Atarteko ateak zabaltzerakoan hartuko duten azalera, gutxienez 1,20 metroko erradioak ematen duena izango da, eta era berean, atartearen diseinua, Sarbidea Sustatzeko 20/1997 Legearen garapenetik sortutako Arau teknikoetan ezarritakoari egokituko zaio, hau da, hiri.esparruetara, eraikinetara, garraio-bideetara eta informazio eta komunikazio sistemetara heltzeko baldintzak ezartzen dituzten arauetara.

Bi atetek izango dituzte ixteko malgukiak, beti ere bietako bat bakarrik egon dadin irekita ezein unetan eta, nagusiki, plano perpendikularretan kokatuko dira.

Aipatutako atetek jarduerari exigitutako airetiko zarata minimora iristeko isolamendua bermatu beharko dute, eta era berean, jartzeko garaian, ate, marko eta/edo zoruan zirrikiturik edo zulorik ez izatea begiratu da ez dadin zaratarik kanpora atera; eta horretarako, egokia izan daitekeen juntura mota erabili beharko da.

Neurri bera hartuko da kanpoko aldean dagoen zarata mailak ezarritakoa gainditzen duenean, jaurtiketa-iturria edozein dela ere. Ondorio hauetarako neurketa lokalaren kanpoko aldean egingo da, atearen aurrean eta irekita dagoela, mikrofonoa, gutxi gorabehera atetik metro batetara eta zorutik 1,2 eta 1,5 metroko altueran. jarri.

2.Musika ekipoa izateko baimena duten jarduerak kanpora ematen duten bao guztien itxitura hermetikoa bermatu beharko dute. Neurri hau betetzea derrigorrezkoa izango da, baita ere, elkarte gastronomikoetan, sagardotegietan eta bizilagunak dituzten eraikinetan burutzen diren antzekoetan.

25.2 artikuluan aurrikusitako salbuespena salbu, inoiz ez dira onartuko leiho erabilgarriak.

3.Artikulu honetako 1. eta 2. pasarteetan ezarritakoak ukitzen ez dituen eta gauez irekita dauden jarduerak ateak itxi beharko dituzte eta, hala badagokio, leihoak, gaueko 22,00etan.

4.Bizilagunak dituzten eraikinetan kokatzen diren merkataritza, industria eta aisialdiko erabilerako jarduerak, lokalaren barne, biltegi gisa erabiltzeko eremu bat izan beharko dute, jardueraren ezaugarriei egokituko zaiena. Hala, bada, debekaturik dago eraikinetako guztien patioak jardueraren biltegi gisa erabiltzea, bai eta guztien elementuak zeharkatuz dauden lokalak xede honekin erabiltzea, beti ere, planeamenduak berak baimentzen duenean ezik (kasu hauetan, ezarritako mugako mailak gaintzea eragotziko duen isolamendu akustiko egokia jarri beharko da).

### 24. art.Terrazak eta kanpoko mahaiak.

1.Jarduera nagusiak baimenduta daukan ordutegia edozein izanik ere, terrazan eta kanpoko mahaien erabilera Udal honetako Ondarearen Atalak baimentzen duen ordutegira mugatuko da, beti ere, eta bere kokapenaren ezaugarri partikularrak direla-eta, ordutegia murriztu ahal izango da, bizilagunentzat gogaikarria izan daitekeen zarata sortzen denean.

2.Musika ekipoa izateko baimena eta terrazak edo kanpoan mahaiak jartzeko baimena duten establezimenduek, ezingo dute ekipoa erabili mahaiak eta aulkiak terrazan dauden bitartean eta jardueran musika ekipoa martxan edukitzeko ordutegiaren barne, leiho-mostradorea itxita egon

beharko du eta, aldi berean, jarduerari exigitzen zaion isolamendu akustiko minimoaz hornituta egon beharko du.

## VI. IDAZPURUA MAKINERIA ETA JARDUERA-INSTALAZIOAK

*25. art. Eska daitezkeen betekizunak.*

1. Ordenantza honetako atal desberdinetan ezarritakoaren kalterik gabe, jardueretan erabiltzen den makineria eta instalazio osagarriak, hala nola klimatizazio, aireztapen edo hozte-sistemak, ate metalikoak, kargagailuak eta/edo beste ezein motako makineriak ezingo dute gertuen dituzten etxebizitza edo lokaletara igorri, Ordenantza honetan ezarritako zarata eta/edo dardarako inmisio-balio maximoak.

2. Kea hustutzeko eta/edo aireztapen behartuko sistemak dituzten lokalen kasuan, behar duten makineria eta, kasua balitz klimatizazio-aparailua, lokalaren beraren barneko aldean kokatu beharko da.

Haizea kanpora ateratzeko sistemak ez dute ezarritako zarata maila maximoetik gorako zaratarik aterako eta, horrenbestez, dagozkion elementu zuzentzaileekin hornitu beharko dira.

3. Zarata eta/edo bibrazioa eraikinaren egituratik barrena zabal ez dadin, ondorengo ataletan ezarritakoa hartuko da kontutan:

— Edozein gailu mugikor kontserbazio egoera onean edukiko da, batez ere, mugitzerakoan leun ibiltzearekin loturik dagoen elementu guztia.

— Ez da makinen eta berauen euskarrien ainguraketa zuzenik onartuko mehelinetan edo zutabeetan. Zoruetan, sabaietan edo esparruak elkarrengandik bereizteko forjatueta zintzilikatzea baimenduko da, baina dardararen kontrako gailu egokien bidez egiten bada.

— Musika ekipoetako bozgoragailuak sabaian, paretetan edo zutabeetan zintzilikatzen badira, dardararen kontrako gailu egokiekin ainguratu beharko dira.

— Garajeetako atea eta merkataritzako, industriako zein aisialdiko jarduerak burutzen diren lokaletako pertsiana metalikoak, bizilagunak dituzten eraikinetan kokatzen direnean, eraikinaren egiturari ainguratuko zaizkie baina dardararen kontrako gailu egokiekin.

— Abio gogorreko makinak, kolpeka edo kolpaketa zakarrekin lan egiten dutenak edo mugimendu alternatiboko gailuak dituzten makinak, lurzorutik eta eraikinaren egituratik isolatutako edo bereizitako bankada independenteetan kokatuko dira, dardararen kontrako gailu egokiez horniturik.

— Mugimenduan dabilzan gailuak dituzten makinekin zuzenean lotutako hodiak, berauetan fluidoak era behartuan dabilenean, makinek sortzen duten dardararen transmisioa eragotziko duten banaketa gailu elastikoak izango dituzte. Hodietako bridak eta euskarriak dardararen kontrako elementuak izango dituzte. Eta, era berean, hodiak pasatzeko hormetan eta paretetan egiten diren pasabideetan dardararen kontrako materialak erabiliko dira.

— Fluidoaren zirkuituetan, balbulen eta kanilen sekzioa eta antolamendua, igarotzen den fluidoak inguruko egituretan zaratarik edo bibrazioz ez transmititzeko modukoa izango.

4. Makineriaren instalazioa zuzentzeko da, jarduera lizentzia lortzeko espedienterako derrigorrez aurkeztu behar den instalazio-proiektuan jasoko diren kalkuluen bidez.

## VII. IDAZPURUA IKUSKARITZA AUTOMATIKOA EGITEKO TRESNAK

*26. art. Ikuskaritza automatikoa egiteko tresna zer den.*

1. Ikuskaritza automatikoa egiteko tresnatzat hartuko da jardueraren kontrola burutzeko lokalean bertan egon gabe kontrola burutzea ahalbidetzen duen tresna. Automatiko izenondoak ikuskaritza aldiro programatu ahal izateari egiten dio erreferentzia. Ikuskaritzan lortutako datuak tresnak berak gordetzen ditu horiek datuen kudeaketarako zentzura transmititu arte. Horrela, udal zerbitzu teknikoak edozein unetan lor dezakete informazioa ondoren horren analisisa egiteko.

### *27. art. Aplikazio eremua.*

Uneoro lokalaren barruan dagoen soinu-maila jasoko duen Sonometro Erregistratzailea ipintzeko obligazioa izango dute musika tresnek edo iraunkorrek ez diren edo erabiltzailearen nahierara alda daitezkeen eta Ordenantza honetan zehaztutako mugak gaindi ditzaketen soinu mailak sortzen dituzten jarduerak sortutako zaratak edo dardarak eragindako asaldadura sortzen duten jarduerak.

### *28. art. Sonografo erregistratzailearen ezaugarriak.*

1. Sonografo erregistratzaileak, gutxienez, ondoko ezaugarriak izan behar ditu:

- Barruko kalibrazio sistema, neurgailua manipulatu izana antzematu ahal izateko.
- Erregistro sonografikoa edo lokalean izan diren soinuak biltzeko sistema, zarataldi bakoitzerako, gutxienez 15 eguneko informazioa gordetzeko ahalmenduna.
  
- Zarataldi guztien erregistroa, bakoitzaren datak, hasiera-bukaerak, eta aldi bakoitzaren kalibrazio-mailak adierazten dutenak.
- Babes-mekanismoak (giltza elektronikoak edo sarbide gakoak erabiliz) ondoko manipulazioak ekiditeko, eta manipulaziorik gertatuko balitz sonografo erregistratzailearen barruko memorian erregistratuta gera daitezzen.
- Erregistro sonografikoak gordetzea, baita aldiroko kalibrazioak ere, argindarrean izandako arazoen kalterik eragin ez diezaioaten.
- Datuak transmititzeko sistema, udal zerbitzu teknikoek gordetako datuak eskuratu eta ikuskaritza zerbitzura bidal ditzaten, han analisisa egin eta ebalua ditzaten. Era berean, lokalean izandako zarataldi bakoitzean gordetako datuak automatikoki udal ikuskaritza bidaltzeko gaitasuna izango dute. Datuen transmisioa Udalak zehaztutako ikuskaritza automatikoa egiteko sistemako komunikazio protokoloa zehazten duen 4. eranskinean deskribatutako protokoloari lotuko zaie.

### *29. art. Musika-ekipoen baldintzak*

1. Ordenantza honetan araututako soinu-mugak hobeto kontrolatzearen, 22.4 artikuluan adierazitakoaren osagarri, eta, oro har, erabiltzaileari soinu-maila aldatzeko aukera ematen dioten erreproduktzio edo amplifikatzeko ekipoak erabiliz musika animazioa duten jarduera guztiak, sonometro erregistratzaileaz gain, soinu-maila mugatzeko tresna jartzera behartu ahal dira. Soinu-maila mugatzeko tresna horren bitartez, inguruko eraikinen barruan soinu-mailaren muga onargarriak gaindi ez daitezzen bermatuko da, baita Araudi honetan exigitutako kanporako jaulkipen mailak bete daitezzen ere.

2. Soinu-maila mugatzeko erabiltzen diren tresnak soinu-kate osoan erabili beharko dira, modu espektralean, lokalaren isolamendu akustikoak ahalbidetzen dion soinu-maila handiena erabiltzeko.

### *30 art. Soinu-maila mugatzeko tresnaren eta sonometro erregistratzailearen arteko integrazioa.*

28 artikuluan zehaztutako tresna, sonometro erregistratzailea, eta 29 artikuluan zehaztutakoa, soinu-maila mugatzeko tresna, tresna bakarrean integratuta egon daitezke (mugatzaile-erregistratzailea). Tresna bakar horrek aurreko bientzako betebeharrak bete beharko ditu.

### *31 art. Ikuskaritza automatikoa egiteko tresnak instalatzeko baldintzak*

Ikuskaritza automatikoa egiteko tresnen instalazioa ondoko baldintzen arabera egingo da:

- Kontrolerako tresnaren instalazioa udal zerbitzu teknikoari jakinarazi beharko dio instalatzaileak, idatziz eta ondokoak adieraziz: marka, modelo, funtzionaltasuna, instalatu deneko kokapena, egongo balitz mugaren balioa eta hoirren arazoiketa. Erabilera zuzena eta kalibrazio zuzena ziurtatu beharko dira.
- Kontrolerako tresnak mantenimendurako programa baten sartuta egongo dira funtzionamendu zuzena bermatzeko, bai tresnarena, bai udal ikuskaritza-sistemarekin lotzeko elementuena, bai neurtzeko sistemaren egiaztapenarena eta gutxienez urtean behin egin beharko den kalibrazioarena. Jardueraren titularraren obligazioa izango da sistemaren eta urteko kalibrazioaren funtzionamendu zuzenaren agiriak eta egiaztagiria aurkezteko.
- Kontrola egiteko tresnen eta Udal Ikuskaritza sistemaren baitako mantenimenduaren kostua ikuskaritza tasatzen hartuko dira, eta estatu espainiarreko 37/2003 Legearen seigarren xedapen

gehigarrian adierazitakoa aintzakotzat hartuta, oso-osorik ordainduko dituzte ordenantza honi lotuta dauden jardueren jabeek.

- Tresnak martxan eta funtzionamendu zuzenean egon beharko dute, aurreko artikuluetan adierazitako ezaugarri guztiak beteaz, egunero-egunero datuak ikuskaritza sistemara igorritik. Datuak ez igortzea eta tresnaren funtzionamendu egokiari eragiten dion edozein gorabehera nahikoa izango dira jarduera prebentzioz eteteko, kontrolerako tresnaren funtzionamendu okerra konpondu arte.

### *32. art. Tresnen funtzionamendua*

1. Ikuskaritza automatikoa egiteko tresnen bitartez etengabeko ikuskaritzari lotutako jarduerak tresna horiek funtzionatzeko egoera onean dituztela burutu beharko dira. Hori dela eta, Ikuskaritza automatikoa egiteko sistemak tresnaren funtzionamenduan gorabeheraren bat antzemango balu, jarduera itxi egingo da harik eta tresnaren mantenimendua egingo duen teknikariak matxuraren arrazoiaren berri eman, eta martxan jartzearen, egiaztapenaren eta funtzionatzeko egoera egokiaren ziurtagiriak aurkeztu ditzan arte.

2. Tresnek egunero bidali beharko dituzte datuak ikuskaritza sistemara. Daturik ez jasotzea nahikoa izango da jarduera prebentzioz eteteko, kontrolerako tresnaren funtzionamendu okerra konpondu arte.

### *33 art. Tresnak homologatzea*

1. Kontrola egiteko tresnak Udalak homologatuak izan beharko dira. Horretarako, kontrola egiteko tresnak ordenantza honetan adierazitako ezaugarri guztiak betetzen dituela egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko ditu fabrikatzaileak udal zerbitzuetan.

### *34. Instalatzaileentzako eta mantenimendu-teknikarientzako baimena*

Instalatzaileak eta mantenimendu-teknikariak Udaletxean aurkeztu beharko dira ondoko agiriak aurketuta:

- Fabrikatzailearen egiaztagiria, kontrola egiteko tresna egoki instalatzeko, egiaztapena egiteko eta kalibrazioa egiteko ezagupenak dituela egiaztatuz.
- Soinu-presioaren maila neurtzeko behar den instrumentazioa edukitzea, gutxienez, ondo kalibratutako II motako sonometroa edukita.

## VII. TITULUA ERREGIMEN JURIDIKO ADMINISTRATIBO OROKORRA

### *35. art. Administrazioaren eskumenak. Ikuskapena eta kontrola egiteko gaitasuna.*

1. Mutrikuko Udalari dagokio Ordenantza honetan ezarritakoa betetzen den kontrolatzea eta, bere eskumenen barne, jardueri eta bereziki, jarduera sailkatuei buruzko gainontzeko arautegia betetzen den zaintzea; exigitzea, era berean, ofizioz zein alde baten eskariz eta gai honen inguruan, bizilagunen babeserako beharrezko diren neurri prebentibo, zuzentzaile edo konpontzaileak har dadin; agintzea, bide batez, egoki irizten dituen ikuskapen guztiak, eta jardueren funtzionamendu egokia egiaztatzeko bere iritzian behar dituen egiaztagiri guztiak exigitzea; behar diren aginduak ematea, urratutako legaltasuna bete dadin; eta zigor ahalmena erabiltzea, arau hau edo Udal honi zigortzeko ahalmena ematen dion gai bereko beste arauak urratzen direnean.

### *36. art. Lizenziak.*

1. Zarata edo dardara dela-eta gogaita edo ez-erosotasuna sor dezaketen titularitate publikoko zein pribatuko instalazio, establezimendu, industria, biltegi eta bestelako jarduerak, Ordenantza honetan xedatzen diren betekizunetara egokitu beharko dira.

2. Aurreko pasartean aipatutako jarduerak, eta martxan jarri aurretik, dagokien jarduera eta irekitze lizentzia lortu behar dute, derrigorrezkoa baita, otsailaren 27ko 3/1998 Legearen, Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko Lege Orokorraren eta berau garatzen duten arautegiaren arabera. Nolanahi ere, lizentziaren izapideak egiteko proiektu bat aurkeztu beharko da, gai den teknikari batek egina eta dagokion elkargo ofizialak bisatutakoa, zarata eta dardararen prebentzioari buruzko atal berezi bat jaso beharko duena.

3. Arau hau indarrean sartu ondoren, betekizun berak eskatuko dira gaur egun funtzionamenduan dauden jarduerak handitzeko edo berritzeko.

*37. art. Lizentziatako betekizunak.*

1. Zarata eta/edo dardara maila dela-eta, pertsonentzako edo bere eraginpeko inguruan dauden ondasunentzako edozein motatako arriskurik edo gogaitik sor dezakeen edozein motatako jarduera, instalazio, makina, aparailu, elementu edo bestelako obrak egiteko eskaeretan, kasu bakoitzean exigituko den dokumentazioarekin batera, azterketa akustiko bat jasoko da. Azterketa hau akustikan gai den eta kreditatuta dagoen teknikari batek edo enpresa espezializatu batek egin beharko du eta bertan, zarata eta/edo dardara transmititzeko gai diren iturriak jaso eta, aldi berean, Ordenantza honetan xedatutakoa betetzen dela egiaztatuko da dagozkion kalkuluen bidez.

2. Akustikari buruzko azterketak, gutxienez, ondoko edukiak jaso eta garatu behar ditu:

a) Zarata eta/edo dardara sor dezakeen edozein gairen identifikazioa eta deskribapena.

Lokalean instalatu behar den soinu-aparailu motaren deskribapena, jaurtiki dezakeen soinu-maila global maximoa adieraziz.

Sortutako zarata/dardara motaren deskribapena: Etengabea, oldartsua, behin-behinekoa, tonu garbien osagai entzungarriekin, behe-frekuentzietako jaurtikipena, eta abar.

Izan dezakeen funtzionamendu modua edo moduen eta ordutegiaren identifikazioa.

Aurrikusitako soinu-jaurtikipenaren mailak (eta nagusiki zortziko hereneko bandetan) bai neurketa errealean bidez ateratakoak, bai datu bibliografiko egiaztatuekin, fabrikatzaileak aitortutako datuekin edo balioespen arrazoituekin ateratakoak.

b) Zarata eta/edo dardara iturriak kokatuko diren lokalaren deskribapena eta bere kokaeran erasan ditzakeen etxebizitza eta/edo lokalaren aldean.

c) Aplikagarri diren ebaluaketa irizpideak, ondorioak jasan ditzaketen zonaldeen eta jarduera motaren arabera.

d) Espero diren soinu inmisioko mailen kalkulua, egiaztatutako jaurtikipen espektroaren eta aurrikusitako indargabetze akustikoaren arabera. Kalkulu hori egiteko onartutako metodo matematikoak erabiltzea onartuko da.

e) Transmisioa moteltzeko beharraren balorazioa, aurreko datuen arabera.

f) Neurri zuzentzaileen diseinua (isolamendu akustikoa, zarataren indargabetzaileak, eta abar) eta deskribapen zehatza, bai eta zortziko hereneko bandetan oinarritutako kalkulu zurigarriak.

g) Proiektuan zehazten den eran, jarduera funtzionamenduan jartzen denean Ordenantza honetan ezarritako inmisio balioak ez direla gaindituko zuzitza.

h) Inpaktuko zarata izango balitz, bere jatorriaren deskribapena, transmisioaren balorazioa eta konponbideen deskribapena, transmisioa ekiditeko xedez.

*38. art. Obra amaierako egiaztapena.*

1. Jarduerari edo instalazioari irekitzeko lizentzia emateko edo funtzionamenduan jartzeko derrigorrez bete beharreko betekizuna da dagokion obra-amaierako egiaztapena aurkeztea. Egiaztapena gai den teknikari batek sinatu eta dagokion elkargo profesionalak bisatutakoa izango da eta, bertan, egindako obra onartutako proiektuari, aplikagarri zaion eta indarrean dagoen araudiari eta ezarritako neurri zuzentzaileei egokitzen zaiola eta jarduera lizentziako gainontzeko betekizunak betetzen dituela kreditatzea, dagozkion baimenak izanik eta egindako instalazio desberdinak zerbitzuan jarritz.

2. Era berean, Ordenantza honetan ezarritako prozedurari jarraiki, gai den teknikari batek edo ENAC (Akreditazio Entitate Nazionala) akreditazioa duen laborategi espezializatu batek egindako neurketa batekin zuritu beharko da, ezarritako jaurtikipen eta inmisio-baloreak eta proiektuan zehaztutakoa betetzen dela.

3. Soinu-mailaren elementu mugatzaileak instalatzea exigitzen diren jardueren kasuan instalazioa egin duen teknikari batek sinatutako txostena aurkeztu beharko da; eta txostenean erabilitako sistema mugatzailearen ezaugarriak eta eragina duen ekipoarenak, eta egindako mugapenaren baldintzak aurkeztu beharko dira, bai eta, isolamendu akustikoaren arabera (zortziko hereneko bandetan, horrela behar izanez gero) egindako mugapenaren baldintzak ere.

*39. art. Teknikari gaituak.*

1. Udal honek akustika-gaietan informatzen edo proiektuak egiten dituzten teknikariei gai honi buruzko heziketa nahikoa egiaztatzea exigi diezaieke.
2. Neurketa akustikoak egiteko, 4. eranskinean eta neurketa eta ziurgabetasun mailaren arabera, gaikuntza maila tekniko desberdinak ezartzen dira.

*40. art. Aldez aurreko egiaztapena.*

1. Arautegi hau bete behar duten jarduerak edo instalazioak ezingo dira ireki edo martxan jarri udalaren aldez aurreko baimenik gabe eta hau, instalazioaren egiaztapena egin ondoren eman ahal izango da.
2. Ireki aurreko egiaztapenean, Udaleko Zerbitzu Tekniko desberdinek egindako obra proiektuan jasotakoari egokitzen zaion eta ezarritako neurri zuzentzaileak aplikatu diren egiaztatuko dute.
3. Egiaztapen horren aldeko txostenak bakarrik emango dio indarra titularrari jarduera burutzen hasteko.

*41. art. Jarduerak martxan jarri ondorengo ikuskapenak.*

1. Martxan jarri ondoren, jarduerak ikuskatu ahal izango du udaleko pertsonalak, bai ofizioz, Udalaren beraren ekimenez, bai erasandako edozein pertsonaren eskariz eta, ikuskapenaren helburua, Ordenantza honetan zehazten diren betebeharrak betetzen diren egiaztatzea izango da.

*42. art. Lizentziarik gabeko jarduerak.*

1. Jardueraren bat lizentziarik gabe edo bertan jasotakoari egokitu gabe burutzen ariko balitz, edo bertan ageri diren hutsuneek pertsonen eta ondasunen segurtasuna edo herri-osasungarritasuna arriskuan jarriko balute, Udalak aipatutako jarduera berehala amaitzeko edo lizentzian jasotzen ez diren elementuen funtzionamendua gerarazteko erabakia hartuko du.
2. Era berean, eta kasua balitz, aurreko pasartean aurreikusitako gelditze erabakiaren derrigorrezko exekuzioaren kalterik gabe, Udalak, interesatuei audientzia eman ondoren, lizentziarik gabe edo bertan ezarritakoari egokitu gabe edo bertan ageri diren hutsuneek pertsonen eta ondasunen segurtasuna edo herri-osasungarritasuna arriskuan dagoen lokala edo instalazioa itxi eta zigilatu ahal izango du. Berehalako arriskua nabaria denean, neurri hauek aldez aurreko audientziarik eman gabe hartu ahal izango dira.

*43. art. Ikuskapen eskaerak.*

1. Ikuskapen eskaerak, prozedura administratiboari buruzko legediak eskaerak aurkezteko finkatzen dituen datuak jasoko dituzte eta, horretaz gainera, ikuskapen bisita egiteko beharrezkoak diren gainontzekoak, hala nola, lokalaren edo gogaitak sortzen dituen instalazioaren identifikazioa, erasandako etxebizitzak edo lokalak eta harremanetarako telefonoa, egiaztapenaren data zehazteko.
2. Bere etxebizitza erasanik arau-hauspenak salatzen dituztenek, udaleko pertsonalari euren etxebizitzan sartzeko baimena emango diote, aldez aurretik igorritako jakinarazpen baten bidez era ofizialean horrela eskatzen zaienean. Salariarik salatutako instalazioetan egiaztapenak egiteko xedez, etxebizitzan sartzeko baimenik emango ez balute, Udal Zerbitzu Teknikoek aurkezturiko denuntzia ezetsi ahalko dute.
3. Salaketa inolako arrazoirik gabe egin dela nabari bada, Udalak salaritariari ikuskapenak sortzen dituen gastuak ordaintzea exigi diezaioke.

*44. art. Ikuskapen prozedura.*

1. Izaera orokorrez eta lokalean eta instalazioetan egiten diren egiaztapenen kalterik gabe, ikuskapen bisita, dagozkion neurketen bidez, erasandako etxebizitzetara edo lokaletara, onartutako mailatik gorako zarata-neurriak igortzen diren egiaztatzeko izango da.
2. Ordenantza honetan ezarritako ez dela betetzen sumatzen den kasu haietan, batez ere jardueraren titularrak iruzurrezko jokabidea izan dezakeela uste denean, Udaleko pertsonalak egoki iritz ditzakeen neurketak eta egiaztapenak egin ahal izango ditu, titularra jakinaren gainean jarri gabe.
3. Nolanahi ere, beharrezko diren egiaztapenak egin ondoren, jardueraren arduradunari jakinaraziko zaio, egindako neurketa eta emaitza, datuak hartzerakoan aukerarik izango balitz.

*45. art.Neurketa akustikoak.*

- 1.Neurketa aparailuek dagokion eranskinean ezarritakoa beteko dute.
- 2.Neurketa akustikoak, neurketaren xedearen arabera, eranskinetan zehazten den eran egingo dira.

*46. art.Neurri zuzentzaileak hartzeko errekerimendua.*

- 1.Behin egiaztapenen ondoren egindako txosten teknikoak ikusirik, zarata mailak Ordenantza honetan ezarritako mailetara egokitzea zuzendutako neurri zuzentzaileak aplika daitezzen errekerimendua egingo da. Errekerimendu horretan arazoari konponbidea emateko epea finkatuko da.
- 2.Proposa daitezkeen soluzio-bideak dagokion dokumentazio teknikoarekin zuritu beharko dira, beti ere, eta gauzatu aurretik, Udal Zerbitzu Teknikoek onar ditzaten.
- 3.Edozein unetan agindu ahal izango da, soinu-mailaren aparailu mugatzaileak jartzea neurri prebentibo gisa eta jaurtikipen mailaren kontrola egiteko eta ezarritako mugak betetzen direla bermatzeko xedez.
- 4.Era berean, zegokion udal lizentzia lortzeko jarduera edo instalazio batek, bere garaian eskatu zen azterketa akustikoan aurreikusitako soinu-maila altuagoak jaurtikitzen dituela egiaztatzen denean, onartutako isolamendu akustiko handiago bat jartzea exigi ahal izango da.

*47. art.Desadostasunak neurketetan.*

- 1.Salatutakoa neurketen emaitzekin bat etorriko balitz, dagokion prozedimenduaren unean, berak helburu horrekin kontratatu ditzakeen teknikariek egindako egiaztapenak aurkeztu ahal izango ditu. Dena den, egiaztapen horiek azter daitezzen, derrigorrezkoa izango da, neurketak arau honetan ezarritako neurketa-metodoetara egokitzea.
- 2.Desadostasunak jarraituz gero, Udalak desadostasunaren gaineko erabakia hartuko du espedientean jasotzen diren datuetan oinarriturik, nolnahi ere, aholkularitza teknikoak eskatu ahal izango dio edozein laborategi espezializaturik eta kreditaturik akustikaren gaian.

*48. art.Neurri zuzentzaileak ez aplikatzea.*

- 1.Neurri zuzentzaileak aplikatzeko epea eta egindako errekerimenduari erantzunik eman gabe igaro ondoren, edo 39.2 artikuluan aipatzen den egiaztapen teknikoak aurkeztu gabe igaro ondoren, jardueraren arduradunaren aurkako espediente zigortzailea irekiko da.

*49. art.Kautelazko neurriak.*

- 1.Egiaztapenaren ondoren, instalazioan, lizentziaren bidez baimendutako zarata-iturri desberdinak hautemango balira edo zaratak oso asaldagarriak direnean bizilagunentzat, berehala aplikatzeko kautelazko neurriak har daitezke, errekerimendua egiten den une berean.

## VIII. IDAZPURUA ARAU-HAUSTEAK ETA ZIGORRAK

*50. art.Arau-hausteak.*

- 1.Otsailaren 27ko 3/1998 Legean, Euskal Herriko Inguru Giroa Babesteko Lege Orokorreko III Kapituluaren aurrikusitakoaren arabera, arau-hausteak dira, ondorengo ataletan jaso eta Ordenantza honetan biltzen diren zehaztapenak ez betetzea. Arau hausteak oso larriak, larriak eta arinak izan daitezke, beti ere pertsonen, bere ondasunen edo inguruari sortzen zaien asaldaketa-mailaren eta lasaitasunaren aztoramenaren arabera; baina bai eta, arau-haustearen jokabide errudun edo iruzurrekoaren arabera.

*51. art.Arau-hauste oso larriak.*

- 1.Oso larritzat jotzen dira ondorengo hauspenak:
  - a)Ordenantza honetan ezarritakoari egokitu behar diren obrei, proiektuei edo jarduketari ekitea edo gauzatzea, dagokion lizentziarik edo baimenik gabe, edo betekizunak bete gabe egitea.
  - b)Ingurugiroaren oreka edo baldintzak modu nabarmenean alda dezakeen zarata eta/edo dardara ingurura jaurtitzea. Kasu honetan izaera hau izango du, onartutako zarata-mailak 12 dB(A)-tan edo



gehiagoan gaintzea eta dardararen transmisioa ezarritakoaren hurrengo goiko oinarritzko kurba bitan gaintzea.

c) Ingurumenaren gaineko inpaktuaren ebaluazioa egiteko edo baimenak edo lizentziak izapidatzeko beharrezko diren datuak ezkutatzea edo faltsutzea.

d) Jardueraren amaiera, itxiera eta etete aginduak ez betetzea eta ezarritako neurri zuzentzaileak ez hartzea.

e) Udalak ezarritako kautelazko neurriak ez betetzea.

f) Beren jarduera Ikuskizun Publiko eta Jolas Jardueren Legeari egokitu behar denean, urtean hiru hauspen larri egitea.

#### *52. art. Arau-hauste larriak.*

1. Larrizat jotzen dira ondorengo arau-hausteak:

a) Aurreko artikuluko ataletan aipatzen direnean baina sortutako asaldura oso larrizat hartzeko moduko baldintzak betetzen ez dituenean.

b) Zarataren mugako maila onargarriak 6 dB(A)-tan, 12 dB(A)-ra bitarte gaintzea eta dardararen transmisioa ezarritakoaren hurrengo goiko oinarritzko kurba bitan gaintzea.

c) Jarduerari edo instalazioei buruzko datuak isiltzea, emateari uko egitea edo eskatutako informazioa ezkutatzea. Era berean, arau-hauste larriak dira, kontroleko sistemak, mugatzaileak, zigiluak eta bestelako maneiatzea edo aldatzea.

d) Udalaren ikuskapen lana aktiboki zein pasiboki oztopatzea.

e) Beren jarduera Ikuskizun Publiko eta Jolas Jardueren Legeari egokitu behar denean, urtean hiru arau-hauste arin egitea.

#### *53. art. Arau-hauste arinak.*

1. Larrizat jotzen dira ondorengo arau-hausteak:

a) Larri edo oso larrizat ezarri direnak baina pertsonengan, ondasunetan edo ingurumenean izan duten eragin urriagatik, larriak edo oso larrizat kalifikatzeko ingurumariak ematen ez direnean.

b) Zarataren mugako maila onargarriak 6 dB(A) tara bitarte gaintzea eta dardararen transmisioa ezarritakoaren hurrengo goiko oinarritzko kurba gaintzea.

c) Zamalanetarako eta bide publiko eta eraikuntza lanetarako 10. eta 11. artikuluan ezarritako ordutegiak ez betetzea.

d) Alarma-sistema baten funtzionamendu ezegoki bategatik bizilagunei sortzen zaion gogaita; beti ere, aparailuaren arduraduna azaltzen ez denean edo berarekin harremanetan jartzea ezinezkoa gertatzen denean eta funtzionamendu ez-egoki horren arrazoia jabeari edo enpresa instalatzaileari edo hornitzaileari egotz dakiokenean.

e) Ibilgailu motoredunak eta ziklomotoreak ihes-tutu librearekin, isilgailu narriatuarekin, osatu gabearekin edo ez-egokiarekin edo ihes-tutu ez-homologatuarekin zirkulatzea; ibilgailuen motorra edo ziklomotoreena behartuz beharrezko ez diren azelerazioekin sortzen diren zarata gogaikarriak; eta bozinak edo bestelako ezein seinale akustiko erabiltzea hiri barruan, beti ere 16. artikuluan ezarritako salbuespenak salbu.

f) Motorezko ibilgailuak berrikuskapenera ez aurkeztea eta ibilgailuak egiten duen zarata kontrolatzeko egin beharreko frogak egiteari uko egitea.

g) Ateak eta leihoak itxita edukitzeko betebeharra, 24. eta 25. artikuluetan aurrikustakoa, ez betetzea.

#### *54. art. Zigorrak.*

1. Arau-hauste oso larriei ondorengo zigorrak egokituko zaizkie:

— 1.503 euro eta 30.051 euroko isuna.

— Instalazioak behin behinekoz ixtea, 6 urteetara bitarte.

— Jardueraren behin behineko itxiera, 6 urtetik beherako epe batetan.

— Jardueraren edo instalazioen behin betiko itxiera.

2. Arau-hauste larriei ondorengo zigorrak egokituko zaizkie:

— 301 euro eta 1.502 euroko isuna.

— Instalazioak behin behinekoz ixtea, 3 urteetara bitarte.

— Jardueraren behin behineko itxiera, 3 urtetik beherako epe batetan.

3. Arau-hauste arinei ondorengo zigorrak egokituko zaizkie:

- 300 euro bitarteko isuna.
- Instalazioak behin behinekoz ixtea, urte betera bitarte.
- Jardueraren behin behineko itxiera, urte betetik beherako epe batetan.

*55. art. Zigorren mailaketa.*

1. Zigorrak ondorengo irizpideen arabera mailakatuko dira: Pertsonen osasunean edo ingurunean duten eraginak, gizartearen sortutako asaldadura, legez kanpo lortutako irabazia, arau-hauslearen intentzioa, portaera iruzurtia eta berrerorketak.

*56. art. Zigortzeko prozedura.*

1. Zigortzeko prozedura arautegi orokorrean ezarritako zigor-prozeduraren arabera izapidatuko dira. Espedientea izapidatzen ari den edozein unetan ezarri ahal izango dira egoki irizten diren kautelazko neurriak, beti ere, asaldatutako lasaitasuna berriro lortzeko xedez.

*57. art. Udalaren jokabidea.*

1. Espediente zigortzaileari hasiera emateko organo eskudunek, izan daitekeen ebazpenaren eraginkortasuna bermatzeko, behin behineko baina beharrezko neurri egokiak erabaki ditzakete edozein unetan, bai eta hauspenaren ondorioak jarrai dezaten ekiditeko edo pertsonen eta ondasunen segurtasun bermatzeko neurriak ere.

2. Neurri horiek izan daitezke: fidantzak eskatzea; segurtasun, higiene edo erosotasun arrazoiak tarteko zerbitzuak, jarduerak edo lizentziak denbora jakin batean etetea; eta titularraren kargura dauden pertsona, establezimendu edo instalazioen segurtasunerako egokiak irizten diren bestelako behin behineko neurriak hartzea.

3. Behin-behingo neurri bat hartuz gero, hori indargabetzeko beharrezkoa izango da udal organo eskudunaren aldeko txostena.

## XEDAPEN GEHIGARRIA

Ordenantza honetan finkatzen diren mailak automatikoki egokituko zaizkie, aplikagarri izan daitezkeen eta goragoko xedapenetan gai honen inguruan erabakitzen diren mailei; beti ere, xedapen horiek baldintza murriztaileagoak edo herritarren bizi-kalitatearen hobekuntzari edo babespen handiagorik badakartzate.

## XEDAPEN IRAGANKORRAK

*Lehen:* Ordenantza hau indarrean jartzen den unean funtzionamenduan dauden jarduerak, bertan ezartzen diren betekizunak eta neurri zuzentzaileak hartuz egokituko dira, baina beti ere, jardueran edozein aldaketa, erreforma edo zabalpena egiten denean edo titularitate aldaketarik dagoenean. Ordenantzara egokitzea erabatekoa edo zati batekoa izango da, egin nahi den aldaketaren garrantziari eta lokalen ingurumariei begira, udal irizpide arrazoituaren arabera.

*Bigarrena:* Aurreko xedapenean ezarritakoaren kalterik gabe, Ordenantza hau indarrean jarri aurretik baimendutako jarduerak izan arren, pertsonentzako edo ondasunentzako gogaikarriak edo beste ezein motako kalterik egiten dela egiaztatzen denean, egokitzapenerako epea, udal agintaritzak erabakitzen duena izango da, kasu bakoitzean arrazoituko delarik ekidin behar den arriskuaren larritasunaren arabera.

## XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indar gabe uzten dira Ordenantza honetako manuzko aginduen kontra doazen edo kontraesanean dauden udal xedapenak.

## AMAIERAKO XEDAPENA

Ordenantza hau indarrean jarriko da, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hiru hilabeteetara.

## 1. ERANSKINA

### ZARATAK ETA DARDARAK; GEHIENEZKO INDIZE ONARGARRIAK

**1 taula. Gune akustikoen sailkapena**

Gune akustiko mota	Zaraten indizea (dB)		
	$L_{Aeq,d}$	$L_{Aeq,e}$	$L_{Aeq,n}$
Zarata-kutsaduraren aurkako babes berezia duen lurzorua (osasun, irakaskuntza edo kultura erabilera)	60	60	50
Nagusiki bizitegi erabilera duen lurzorua	65	65	55
Nagusiki industria erabilera duen lurzorua	75	75	65

Hurrenez hurren,  $L_{Aeq,d}$ ,  $L_{Aeq,e}$  y  $L_{Aeq,n}$  eguneko, arratsaldeko eta gaueko zarata jarraiaren indize baliokideak dira. Indize hauek 1367/2007 Errege Dekretuan eta I. eranskinean datoz zehaztuta. Aplikagarriak diren ordutegi zerrendak ED horretan deskribatutakoak izango dira.

**2 taula. Eraikinetan sortutako zarataren balio-mugak**

Eraikinaren erabilera	Esparru mota	Zarata indizeak		
		$L_d$	$L_e$	$L_n$
Bizitegiak	Egoteko guneak	45	45	35
	Logelak	40	40	30
Ospitalak	Egoteko guneak	45	45	35
	Logelak	40	40	30
Irakaskuntza edo kultura	Gelak	40	40	40
	Irakurgelak	35	35	35

OHARRA: Taula honetako balioak esparruaren barruan eragina duten zarata igorleen multzoaren ondoriozko indizearen balioei buruzkoak dira (eraikineko instalakuntzak, eraikinean bertan edo mugakideetan burutzen diren jarduerak, barrura sartutako inguruko zarata).

**3 taula. Jarduerak burutzeagatik aldameneko lokaletara transmititutako zarataren balio-mugak**

Aldameneko loikalaren erabilera	Esparru mota	Zarata indizeak		
		$L_{K,d}$	$L_{K,e}$	$L_{K,n}$

Bizitegia	Egoteko guneak	45	45	30
	Logelak	35	35	25
Administratiboa eta bulegoak	Bulego profesionalak	35	35	35
	Bulegoak	40	40	40
Ospitalak	Egoteko guneak	40	40	30
	Logelak	35	35	25
Irakaskuntza edo kultura	Gelak	35	35	35
	Irakurgelak	30	30	30

1367/2007 Errege Dekretuaren 2 artikuluan ezartzen denez,  $L_{K,x}$  epe luzean zuzendutako "x" ebaluazio aldiko zarataren indizea da.

**4 taula. Eraikinei aplikagarriak zaizkien dardara-mugak**

Eraikinaren erabilera	Dardara indizea ( $L_{aw}$ )
Bizitegia	75
Ospitalak	72
Irakaskuntza eta kultura	72

## 2. ERANSKINA NEURKETA PROZEDURA

### *1. Neurgailuak.*

Neurketetan erabiliko diren ekipoek, sonometroei buruzko UNE-EN 60651:1996 eta UNE-EN 60651/A1:1997 arauetan zehazten diren 0 edo 1 motako doitasun-betebeharrak beteko dituzte eta sonometro integratzaile-promediatzaileei dagokionean, UNE-EN 60804:1996 y UNE-EN 60804/A2:1997 araua.

Neurketa katea, neurketa egin aurretik eta amaitu ondoren segituan egiaztatu behar da 1 motako soinu-kalibratzaile baten bidez, edo hobe, UNE 20942:1994 arauan zehazten diren baldintzak betetzen dituen baten bidez.

Erabili behar diren filtroek UNE 21328-4:1975 eta UNE-EN 61260:1997 arauetan ezarritako baldintzak bete behar dituzte.

Erreberberazio denboraren neurketan erabiliko diren ekipoek UNE-EN 20354:1994 arauan definitutako baldintzak bete behar dituzte.

Airetiko zarataren isolamendua neurtzeko soinu-iturri bat erabiltzen bada, aparailu honek UNE-EN 20354:1994 arauan definitutako baldintzak bete behar ditu.

Inpaktu-makina aparailuak, berriz, UNE-EN ISO 140-7:1999 arauan definitutako baldintzak bete behar ditu.

Dardaren neurketetan bermatu behar da, neurketa-katea eta interesatzen diren frekuentzien tartea (1-80 Hz) bateragarriak direla. Eta neurketa-aparailuak UNE-ENV 28041:1994 arauan definitutako baldintzak bete behar ditu.

Neurketen kalitatea bermatzeko, sonometroek, sonometro integratzaile-promediatzaileek eta kalibratzaile akustikoek 1998ko abenduaren 16ko Aginduan ezarritakoa bete behar dute, modeloari, jatorrizko egiaztapenari, konponketa edo aldatetaren ondorengo egiaztapenari eta aldian aldiko egiaztapenari dagokionean. Gainontzeko neurketa-aparailuek mantenimendu eta kalibrazio plan baten barne sartu beharko dira eta urtero egiaztatu beharko dira.

Atal honetan jasotzen diren UNE arau guztiak automatikoki aldatuko dira, dagokionean eta bere garaian onartzen diren ordezkoein.

### *2. Zuzenketak neurtutako mailatan.*

Zenbait kasutan neurtutako mailari zaratagatiko edo atzeko dardaragatiko zuzenketak aplikatu behar zaizkie, bai eta tonu eta/edo inpulsiio osagaiak izaten direlako ere.

Kasu hauetan, neurtutako maileri dagozkion zuzenketak aplikatu ondoren ateratzen den maila izango da baliozkoa; guztiak, nolahi ere, metagarriak izango dira.

#### *2.1. Zarata edo atzeko dardaragatiko zuzenketa.*

Atzeko zarataren eta/edo dardararen neurketak egin behar dira inmisio mailak neurtu behar diren tokietan, atzeko zarata eta/edo dardarak jarduerak edo instalazioak berez sortzen dituen mailatan eraginik ez dutela ziurtatzeko.

Atzeko zarata edo dardara mailaren definizioa da, zarata-iturria funtzionamenduan ez dagoenean toki horretan berez dagoen zarata edo dardara maila.

Atzeko zarata neurtzeko Leq maila zehaztu behar da neurketaren garaian.

Soinu maila globalen arteko diferentzia, zarata-iturria martzan dagoela edo ez neurturik, 10 dB(A)tik gorakoa izan beharko du atzeko zaratak neurketan eraginik ez duela irizteko. Diferentzia hori 3 dB(A)tik beherakoa bada neurketa ez dela baliozkoa iritziko da.

Aldiz, diferentzia 10 dB (A) edo hortik beherakoa eta 3 dB(A) edo hortik gorakoa bada, ondorengo zuzenketa aplikatuko da neurtutako mailatan:

$$L = 10 \lg (10L_{sb}/10 - 10L_b/10)$$

eta horietan,

—L zarata iturriak igortzen duen maila zuzendua da.

—Lsb zarata iturria funtzionatzen ari dela neurtutako maila konbinatua da.

—Lb zarata iturria geldirik dagoela neurtutako maila da.

Mailen arteko diferentzia 10 dB(A)tik gorakoa bada ez da inolako zuzenketarik egin behar, atzeko zaratak neurketan ez duela eraginik iritziz.

Azterketa frekuentziatan egiten denean, erabiltzen den frekuentzia-espektra osatzen duen banda bakoitzarentzako zuzenketak dB-tan egingo dira, neurketaren xede denaren arabera aplikagarri zaion UNE edo ISO arauan ezarritakoari jarraiki

#### *2.2. Tonu-osagaiko zuzenketa.*

Zaratan tonu-osagaiak dauden ala ez ebaluatzeko ondorengo prozedurari jarraituko zaio:

100 eta 5000 Hz arteko frekuentzien azterketa egingo da, ponderazio eta erresoluzio lineala erabiliz, zortziko hereneko ebazpenarekin, bai eta 20 eta 8000 Hz artekoetan ere posible eta beharrezko balitz. Alboetako bandetan dagoen presio akustikoaren maila gainditzen duten bandak zehaztuko dira.

Alboetako bi bandetako eta kontutan hartutako bandaren mailaren artean dauden diferentziak kalkulatu dira eta ondoren, diferentzia horien batez-besteko aritmetikoa kalkulatu da (Dm). Kontutan hartuko den banda dagokion penalizazio-balio maximoa duen banda izango da. Penalizazio hori dB(A)-tan neurtutako batez-besteko maila orokorraren arabera aplikatu da eta ondorengo taularen arabera zehaztu:

### 5. Taula. Tonu-osagaiekiko faktore zuzentzaileak

FREKUENTZI TARTEAK	TONU-OSAGAIEKO ZUZENKETA		
	$D_m \geq 5 \text{ dB}$	$D_m \geq 8 \text{ dB}$	$D_m \geq 15 \text{ dB}$
20 – 125 Hz	1 dB(A)	3 dB(A)	5 dB(A)
160 – 400 Hz	3 dB(A)	5 dB(A)	5 dB(A)
500 – 8000 Hz	5 dB(A)	5 dB(A)	5 dB(A)

Dm balioa 5 dB-tik beherakoa bada ez da tonu-osagairik dagoenik iritziko eta horrenbestez penalizazioa hutsa izango da.

#### 2.3. Osagai inpuitsiboko zuzenketa.

Ebaluatzen den zaratak izaera inpuitsiboko osagaiak ditu, soinu-presio maila altuko eta iraupen txikiko soinuak jasotzen direnean.

Osagai inpuitsiboak dauden ebaluaketa ondorengo prozedurari jarraiki egingo da.

Leq maila jarrai balioidea dB(A)-tan neurtuko da eta, ondoren, behaketa denbora berean, sonometroaren «Inpuitsio» ezaugarriaren bidez neurtuko da soinu-presioa.

Bi neurrien arteko diferentzia 3 dB(A)-tik beherakoa bada, ez dago osagai inpuitsiborik; diferentzia 3 eta 6 dB(A)-tan badago osagai inpuitsiboak agerikoa dira (3 dB(A)-ko penalizazioa) eta diferentzia 6 dB(A)-tik gorakoa bada osagai inpuitsiboak nabarmenak dira (6 dB(A)-ko penalizazioa).

#### 3. Neurketa motak.

##### 3.1. Soinu maila globalen zehaztapena.

##### 3.1.1. Soinu maila globalen mailak barneko guneetan.

Soinu mailaren neurketa barneko guneetan ISO 1996 arauetan, edo ordezkatzeko duen beste ezeinetan ezarritakoaren arabera egingo da.

Aurre ikuskapen kualitatibo baten bidez gogaikarritasun-puntuak identifikatu dira. Behin jaurtikipen maximoa puntua aurkitu ondoren, neurketak egingo dira kokapen horretan.

Zarataren izaera definituko da: Jarraia, aldizkakoa, inpuitsiboa, tonu garbiko den, eta abar.

Funtzionamendu modu desberdinak identifikatu dira, lokal jaurtikitzailako mailak edo jardueratik edo instalaziotik gertuko guneetako mailak neurtuz. Informazio hau erreferentzi gisa hartuko da, neurketak egin diren baldintzak ezagutzeko eta neurketak eta bere errepikagarritasun mailak konparatzeko.

Hartzailean ematen diren mailak gehien erasandako inguruan, gunean edo lokalean neurtuko dira, ateak eta leihoak itxita dauden bitartean. Dena den, zarata kanpoan sortzen dela garbi dagoenean (esate baterako, patioetarako erauzketa-instalazioak) neurketa leihoak irekita egin ahal izango da.

Gutxienez bost neurketa egingo dira bata bestearen ondoren eta toki desberdinetan elkarrengandik gutxienez 0,7 metrora aldentuz. Neurketak, bestalde, paretetatik edo bestelako azalera isladatzaileetatik metro batera, zorutik 1,2 eta 1,5 metro bitartean, aukerarik balego, eta leihoetatik 1,5 metrotatik aurrera, baina bai eta areto hartzailearen erdialdean ere.

Neurketaren denbora, zarata-iturriaren funtzionamendu ezaugarrien arabera erabakiko da eta, beti, bilakaeraren maila adierazgarri bat lortzeko behar den denbora emango da neurketa egiten. Nolanahi ere, neurketa denbora minimoa 10 segundokoa izango da.

Neurketa, neurgailuaren A frekuentziako ponderazioa eta FAST (azkarra) denborako ponderazioak erabiliz egingo da. Leq eta Lmax mailak zehaztu behar dira neurketa egiten denean.

Neurketaren Leq maila adierazgarria izango da, egindako neurketen energia batez-bestekoa zarata etengabea den kasuetan eta neurtutako Leq mailaketako baliorik handiena zarata izaera aldakorrekota denean.

Neurketaren Lmax maila adierazgarria izango da, egindako neurketen batez-besteko aritmetikoa.

##### 3.1.2. Soinu maila orokorraren mailak kanpoko guneetan.

Soinu mailaren neurketa kanpoko guneetan ISO 1996 arauetan, edo ordezkatzeko duen beste ezeinetan ezarritakoaren arabera egingo da.

Kanpoko aldeetan egiten diren neurketak, gutxienez, paretetik, eraikinetatik edo zorua ez den beste ezein egitura isladatzailetik 3,5 metrora, zorutik 1,2 eta 1,5 metrora egin beharko dira, mikrofonoa zarataren iturrira begira dagoela.

Jarduerek edo instalazioek kanpora fatxada baten bidez jaurtikitzen duten zarata neurtzen denean, mikrofonoa, lokalaren fatxadaren planotik 2 metrotara jarri beharko da.

Jarduerek edo instalazioek kanpora irekiune batetik jaurtikitzen duten zarata neurtzen denean (berogailuak, aireztapen eta aire egokitutako instalazioak, tximiniak, konpresoreak, motoreak, sorgailuak, eta abar) mikrofonoa, irekiunetik metro batetara jarri beharko da, gutxi gorabehera.

Eraikinen kasuan neurketak toki libreko baldintza berdinetan egin beharko dira, hau da, erreflexioen eragina hartu beharko da kontutan, lurzoruak berak eragiten duena ordea, ez da kontutan izango. Neurketak dagokion tokietan egingo dira, fatxadatik metro batetara edo gehiagora, edo leiho irekita baten aurrean, eta zorutik 1,2 eta 1,5 metro bitartean.

Neurketak fatxadatik metro batetara edo gehiagora egiten bada neurtutako balioari 3 dB murriztuko zaizkio, eraikinaren erreflexioak kontutan hartzeko.

Soinu-seinal nahasgarriak ekidin egingo dira; esate baterako haizearen edo airearen fluxuaren zarata neurketan erabilitako mikrofonoan, interferentzia elektrostatik datorrena edo iturri ez jakinetatik eratorritako bestelako zarata.

Kontutan izango da, era berean, eguraldiaren eragin posiblea (haizearen norabidea eta abiadura, euria, beroa, eta abar). Gomendagarria da neurketak egonkortasun handieneko baldintzetan egitea (zarata-iturritik hargailurantzko norabideko haize arina edo inbertsio termiko arineko egoeretan, normalean gaueko orduetan gertatzen dena). Nolanahi ere, neurketaren garaian izan diren baldintza klimatologikoak zehaztuko dira, bai eta neurketan izan dezakeen eragina ere.

Baldintza klimatologikoak kontutan hartzea ez da beharrezkoa izango jaurtigailuaren eta hargailuaren arteko distantzia 25 metrotatik beherakoa denean, altuera 2 metrotatik beherakoa eta zarata-hargailua 1,5 metrotatik beherako altueran dagoenean. Zarata-iturriaren eta mikrofonoaren arteko altuerak handiagoak direnean ez da beharrezkoa izango baldintza klimatologikoak kontrolatzea bien arteko distantzia 50 metrotatik beherakoa denean.

Neurketak, zarata-iturria ohiko funtzionamenduan ari denean egingo dira, eta mailarik gorenenak ematen dituzten garaiko neurketak hautatuko dira, gogaikarritasun gehiena orduan sortzen baita.

Mikrofonoa toki desberdinetan jarriko da, neurketa bakar bat egitea ez dela adierazgarria irizten den kasuetan. Nolanahi ere, egindako neurketen kopurua eta jarritako tokia adierazi egin beharko dira txostenean.

Neurketa garaia kasu bakoitzaren arabera erabakiko da eta zarata-iturriaren funtzionamendu ezaugarrien arabera egingo da; eta zarataren bilakaeraren maila adierazgarri bat lortzeko behar adina denboran egingo da beti neurketa. Nolanahi ere, neurketetan zarata-iturriaren funtzionamendu tarte adierazgarrienak jasoko dira, beti ere Ordenantza honetan zehaztutako mailak lortzeko

3.1.3. Ziklomotoreak eta motozikletek egiten duten zarataren ezarpena.

Neurketa egiteko motozikleta edo ziklomotorea geldituta egongo da. Ihes-tutuaren irteeran (isilgailuan) daukan presio akustikoa neurtuko da, ondoren zehazten diren zehaztapenei jarraiki.


Froga egiten den tokian ez da gorabehera akustiko garrantzitsurik izango: Hormak, landareak, Zorua laua izan beharko du eta ormigoiez, asfaltoaz edo bestelako estaldura gogor batekin zolaturik egongo da. Laukizuzen baten forma izango du, eta aldeak, gutxienez, motozikletatik edo ziklomotoretik 3 metrora egongo dira, eskulekua alde batera utziz.

Aipatu laukizuzen horren barne ez da traba nabarmenik izango ez eta behatzailea eta gidaria ez diren beste pertsonak. Zintarririk badago, motozikleta edo ziklomotorea laukizuzen barne kokatuko da, neurketa-mikrofonoa, gutxienez, metro batetara kokatuz.

Inguru horretan dagoen zarata-maila neurtu beharko da. Neurri hauek izango dira, gutxienez, neurtu behar den soinu-maila baino 10 dB(A) gutxiagokoak. Neurketan haizearen zarata ekiditeko mikrofonoari, haizeaz babesteko pantaila jarri beharko zaio.

Mikrofonoa, ihes-tutuaren irteeraren parean kokatuko eta, inoiz ez, pistaren zorutik 0,2 metrotatik beherako altueran. Mikrofonoaren mintza gasaren irteera-tokiari begira eta 0,5 metrora jarriko da. Mikrofonoa pistaren lurzoruaren paraleloan egongo da eta  $45^\circ \pm 10^\circ$ -ko angelua osatuko du, ihes-tututik gasak irteten diren norabidearen plano bertikalarekin. Ihes-tutu desberdinak baditu eta beraien arteko erdigunea 0,3 metrotatik behera badago, mikrofonoa barnerago dagoen edo gorakoari begira jarriko da. Aldiz, tutuen erdiguneen arteko tartea 0,3 metrotatik gorakoa bada, irteera bakoitzean neurketa bat egingo da eta kontutan neurketaren maila altuena bakarrik hartuko da kontutan.

Ziklomotore eta motozikletetan zarataren neurketa burutzeko neurgailua ezartzeko eskema marrazkia



Neurketari ekin aurretik motorra funtzionamenduko tenperatu normalean jarriko da. Neurketa egiten den bitartean abiadura martxarik jarri gabe egongo da. Transmisioa kentzea ezinezkoa den kasuetan, gurpil eragilea mugitzen utziko da, esate baterako, motozikleta edo ziklomotorea sostengu baten gainera igoz.

Motorra estabilizatu egingo da azelerazioaren bidearen erdialdera arte azeleratu ondoren. Estabilizatzen denean azeleragailua ralentiko posiziora eramango da. Soinu-maila neurtuko da, motorea estabilizatuta edukitzen den unean eta dezelerazio prozesu osoan zehar.

Neurketa, neurgailuaren A frekuentziako ponderazioa eta FAST (azkarra) denborako ponderazioak erabiliz egingo da. Leq eta Lmax mailak zehaztu beharko dira neurketa egiten denean.

Gutxienez hiru neurketa egingo dira, mikrofonoa kokatzeko identifikatu diren puntu bakoitzean. Dena den kontutan hartuko diren neurketak izango dira beraien artean 2 dB(A)-ko aldea baino gutxiagoko maila ematen dutenak.

Neurketaren maila izango da, egindako hiru neurketen arteko batez-besteko aritmetikoa.

### 3.2. Lokalen arteko airetiko zarata-isolamenduaren zehaztapena.

Neurketak UNE-EN ISO 140-4:1999 arauaren arabera egingo dira, edo/eta berau ordezkatzan duen beste ezein arauaren arabera.

Lokalen arteko airetiko isolamendu akustikoa dB(A) (DnTA) estandare mailatan, diferentzia globala ematen duen indizearen bidez zehaztuko da.

Indize hori kalkulatzeko beharrezkoa izango da, aldez aurretik, mailen arteko diferentzia estandarizatua (DnT), ondorengo formularen arabera ateratzea.

$$DnT = L1 - L2 + 10 \lg (T/T0)$$

eta hemen,

—L1 batez-besteko soinu-presioaren maila da lokal jaurtikitzailean.

—L2 batez-besteko soinu-presioaren maila da lokal hartzailean.

—T erreberberazio denbora lokal hartzailean.

—T0 erreferentziako erreberberazio denbora; T0 = 0,5 s.

Soinu-presioaren maila 100 eta 5000 Hz arteko zortziko hereneko filtroak erabiliz neurtu behar da, bai eta posible eta beharrezko balitz, 50 eta 5000 Hz. arteko frekuentzian.

Erreberberazio denbora, frekuentzi banda bakoitzerako egindako neurketen batez-besteko aritmetikoa izango da.

#### 3.2.1. Airetiko zarataren isolamendu akustikoaren indizearen kalkulurako metodoa.

Airetiko zarataren isolamendu akustikoaren indizeak dB(A) (DnTA) emanak bi lokalen arteko isolamendu akustikoa balio bakar baten bidez irudika daiteke. Eta ondorengo eran kalkulatzan da.

j azpi-indizeko frekuentzia-banda bakoitzerako:

—Lj kalkulua egiteko jaurtikipen espektroaren presio mailaren balioa da, eta bertatik abiatu egiten da kalkulua (zarata larrosako espektroarentzat Lj konstantea da frekuentzia-banda guztietan).

—DnTj maila estandarizatuen arteko diferentziaren balioa.

—Cj A ponderazioaren balioa.

Jaurtikipen teorikoaren espektroaren A maila global ponderatua (LEA) lortzen da, hots:

m

$$LEA = 10 \lg \sum_{j=1} 10(Lj+Cj)/10$$

j=1

Harpen teorikoaren espektroaren A maila global ponderatua (LRA) lortzen da, hots:

m

$$LRA = 10 \lg \sum_{j=1} 10(Lj-DnTj)/10$$



j = 1

eta formula hauetan,

m zortziko hereneko bandak neurtutako tartea da.

Airetiko zarataren isolamendu akustikoaren indizea, dB(A) (DnTA) emana, lortzen da:

$DnTA = LEA - LRA$

3.2.2. A ponderazioaren C<sub>j</sub> balioak

6. Taula. Zortzik ohereneko banda bakoitzeko balioak

J	1	2	3	4	5	6	7	8
Frekuentzia zentrala (Hz)	50	63	80	100	125	160	200	250
C <sub>j</sub> (dB)	-30,2	-26,2	-22,5	-19,1	-16,1	-13,4	-10,9	-8,6
J	9	10	11	12	13	14	15	
Frekuentzia zentrala (Hz)	315	400	500	630	800	1000	1250	
C <sub>j</sub> (dB)	-6,6	-4,8	-3,2	-1,9	-0,8	0	+0,6	
J	16	17	18	19	20	21		
Frekuentzia zentrala (Hz)	1600	2000	2500	3150	4000	5000		
C <sub>j</sub> (dB)	+1,0	+1,2	+1,3	+1,2	+1,0	+0,5		

### 3.3. Lokalen arteko inpaktu zarataren mailen zehaztapena.

Neurketak UNE-EN ISO 140-7:1999 arauaren arabera egingo dira, edo/eta berau ordezkatzeko duen beste ezein arauaren arabera.

Lokalen arteko airetiko isolamendu akustikoa dB(A) (L'nTA) estandare mailatan, diferentzia globala ematen duen indizearen bidez zehaztuko da.

Indize hori kalkulatzeko beharrezkoa izango da, aldez aurretik, mailen arteko diferentzia estandarizatua (L'nT), ondorengo formularen arabera ateratzea.

$$L'nT = Li - 10 \lg (T/T_0)$$

eta hemen,

—L<sub>i</sub> batez-besteko soinu-presioaren maila da lokal hartzailean.

—T erreberberazio denbora lokal hartzailean.

—T<sub>0</sub> erreferentziako erreberberazio denbora; T<sub>0</sub> = 0,5 s.

Soinu-presioaren maila 100 eta 5000 Hz arteko zortziko hereneko filtroak erabiliz neurtu behar da, bai eta posible eta beharrezko balitz, 50 eta 5000 Hz. arteko frekuentzian.

Erreberberazio denbora, frekuentzia-banda bakoitzerako egindako neurketen batez-besteko aritmetikoa izango da.

#### 3.3.1. Inpaktuen zarata-maila kalkulatzeko sistema.

Inpaktuen zarata-maila dB(A) (L'nTA) emanak, balio bakar baten bidez irudikatze aukera ematen du. Eta kalkulua honako era honetan egiten da.

j azpi-indizeko frekuentzia-banda bakoitzerako:

—L'nT<sub>j</sub> inpaktu estandareen zarata-presioaren mailaren balioa

—C<sub>j</sub> A ponderazioaren balioa.

Inpaktuen zarata-maila dB(A) (L'nTA) emana, honako era honetan kalkulatzen da:

m

$$L'nTA = 10 \lg \sum_{j=1} 10^{(L'nT_j + C_j)/10}$$

j = 1

eta formula hauetan,

m zortziko hereneko bandak neurtutako tartea da.

### 3.4. Dardara mailen zehaztapena eraikinetan.

Dardara transmisioko edozein fokok eraikinetan sortzen duen dardara maila zehazteko neurketak ISO 2631-2:1989 arauaren edo ordezkari erabakitzen den beste edozeinen arabera egingo dira.

Neurketa parametro gisa, r.m.s. azelerazio neurria erabiliko da zortziko hereneko bandetako 1 eta 80 Hz tarteko frekuentzian.

Batez-besteko balioa edo maximoa erabiliko da behaketa denboraren eta dardararen motaren arabera (jarraia edo aldizkakoa).

Behaketa denbora, dardara-iturriaren funtzionamendu modu desberdinen arabera izango da, aurreuposatuz erregimen desberdinek dardara maila aldakorrak eragiten dituztela.

Neurketarako gehien erasniko tokia hautatu behar da. Neurketak forjatuaren erdian egingo dira eta, beti, dardararen anplifikazioa maximoa den tokia bilatuko da (hau da, hobe da zurezkoa zoru zeramikazkoa baino eta, sentsorea eskudeletan edo habetan jarriz anplifikazioa handiagoa baita).

Ardatz bertikala hautatuko da neurketaren norabiderako eta forjatuaren dardara transduktoreari ondo igarotzen zaiola ziurtatuz. Mokatuko zorueta, azelerometroa zoru solidorekin kontaktuan jartzeko osagai bat erabili beharko da.


Neurketak egin aurretik eta ondoren neurketa-katearen egiaztapen bat egin beharko da dardara-eszitatzaile batekin, nolahi ere funtzionamendu zuzena bermatu behar da.

Lehenik, eta posible den guztietan, dardara zehazteko, dardara-iturria geldirik egonda atzeko dardara-maila neurtu behar da.

Ondoren, dardara-iturria funtzionamenduan, batez-besteko adierazgarriko balio bat lortzeko dardara-erregistro kopuru bat hartuko da (gutxienez hiru posizio bakoitzean). Nolanahi ere, neurketa-txostenean, posizio bakoitzean jasotako lagin kopurua zehaztuko da.

Dardara mota bakoitzaren arabera, jarraia edo aldikoa, azterketa modu linealean egingo da (dardararen iraupenaren arabera denboran hartuz) edo modu esponentzialean, SLOW. Neurgailu konpaktoen kasuan neurketan erabili den denbora-ponderazio mota adieraziko da.

Neurketaren emaitza gisa, grafiko eta taula formatoan, azelerazio-espektroa aurkeztuko da, ondoren jasotzen diren ISO 2631-2:1989 arauak ematen dituen erreferentzia-kurben arabera.



Era berean, dardara-espektroaren K kurba ingurutzailaren balioa zehaztuko da. Ondoren zortziko hereneko azelerazioaren oinarritzko kurbaren (K=1) balioak jasotzen dira. K kurba bakoitzaren balioak, oinarritzko kurba hau faktore biderkatzailearekin biderkatuz kalkulatzen dira.

*Azelerazioa*

*Hz r.m.s. m/s<sup>2</sup>*

1 0,0036

1,25 0,0036

1,6 0,0036

2 0,0036

2,5 0,00372

3,15 0,00387

4 0,00407

5 0,0043

6,3 0,0046

8 0,005

10 0,0063

12,5 0,0078

16 0,01

20 0,0125

25 0,0156

31,5 0,0197

40 0,025

50 0,0313

63 0,0394

80 0,05

*3.5. Neurketaren txostena.*

Neurketaren txostenean, gutxienez, ondoko informazioa jaso beharko da:

—Neurketa egiten duen laborategiaren izena.

—Txostenaren zenbakia.

—Neurketaren eskatzailea.

—Jardueraren edo instalazioaren datuak eta erasaniko etxebizitzaren edo lokalarena:

Titularra.

Mota.

Helbidea.

—Hautatutako neurketa-aldiak eta jaurtiketa-fokoaren baldintzak.

—Neurketaren datu orokorrak:

Data.

Ordua.

Neurketa egin duen teknikaria.

Neurketa-tokia.

Neurketa-ekipoa (fabrikatzailea, modeloa, serie zkia. edo kodea, eta abar).

Neurketa-ekipoaren kalibrazio-ziurtagiria.

—Neurrien antolaera. Beharrezkoa denean krokis batetan jasoko da.

Airetiko zarataren isolamendu neurrietan edo inpaktuen zarata mailaren neurketetan lokal hartzailean dagoen bolumena eta bien arteko elementu banatzaileak jasoko dira (azalera eta osaketa jakinez gero).

—Metodologia eta/edo erabilitako prozedura: Ordenantza honen aipamena jasoko da, bai eta aplikagarri izan daitezkeen gainontzeko arauak ere. Erabilitako prozeduraren deskribapen labur bat egin (neurketa-tokiak eta kopurua, eta abar) eta neurtutako zarata mota azalduko da.

Kanpoko aldean egindako neurketetan, eguraldiaren eragin posiblearen aipamena egingo da.

—Ebaluaketarako irizpideak: Ordenantza honen aipamena egingo da eta, zona-motaren arabera, zarataren inmisio-maila mugakoak zehaztu, jarduera edo instalazio motaren arabera exigigarri zaion isolamendu minimoa eta, kasua balitz, jardueraren lizentzia-proiektuan zehaztutako betekizunak, zarataren jaurtikipen mailari, isolamendu akustiko eta bestelakoei buruzkoak.

—Emaitzak: Neurtutako zarata-mailak aurkeztuko dira, parametroak, neurketa-tarteak eta zuzenketa-neurriak.

Egindako neurketa guztiek emandako emaitzak taularen formatoan aurkeztuko dira.

Airetiko zarataren isolamenduari buruzko kurbaren emaitzak, inpaktuen zarata-maila eta dardararen r.m.s. azelerazio-espektroa taularen formatoan eta frekuentzia-banda bakoitzeko grafiko baten bidez aurkeztuko dira.

Fondo-zaratak emaitzetan eragina izanez gero, neurketaren mugen gaineko aipamena egingo da.

Neurketen ziurgabetasun ezaren neurria balioztatuko da.

—Ondorioak: Emaitzak Ordenantza honetan ezarritako betekizunen arabera balioztatuko dira era objektibo batean.

Airetiko zarataren eta inpaktuen zarataren isolamendu akustikoko neurketetan eta, hurrenez hurren, UNE-EN ISO 140-4:1999 y UNE-EN ISO 140-7:1999 arauetan finkatzen diren emaitzak jasotzeko ereduak erabiliko dira.

### 3. ERANSKINA NEURKETA AKUSTIKOAK EGITEKO GAITASUN MAILAK

Neurketa akustiko mota desberdinak egiteko beharrezkoa izango da dagokion gaitasun tekniko izatea, neurketaren fidagarritasuna bermatzeko xedez.

Ondorio hauetarako hiru gaitasun maila ezartzen dira, beti ere neurketaren xedearen arabera:

#### 1. Ikuskaritza-neurketak.

Neurketa hauek soinu-maila globaleko neurketak barneko guneeetan egiteko eta ibilgailuek egiten duten zarata neurtzeko gaiturik dagoen pertsonak bakarrik egin ahal izango ditu, eta dB(A) maila globala zehazteko oinarritzko sonometroak izan beharko dituzte.

Beren prestakuntza akustikoaren, zarataren neurketari buruzko ikastaro praktikoak egin ondoren lortutako kualifikazio ziurtagirien bidez egiaztatu ahal izango dira; egiaztagiri hauek, akustikaren gaian teknikariak prestatzen izen handiko pertsonak edo entitateak emandako ikastaroetan lortu ahal izango dira. Era berean, eta ziurtagiria osatzeko xedez, neurketa errealak, teknikari kualifikatuen gainbegiradapean edo/eta, bestela, gaitutako pertsonak egindako neurketekin konparaketak egin dituztela egiaztatu beharko da.

#### 2. Isolamendu-neurriak, inpaktuen zarata, dardara eta soinu-mailak kanpoko ingurunetan.

Lanbide heziketako kualifikatuek bakarrik egin ahal izango dituzte, beti ere neurketa-ekipo egokiak, zortziko-hereneko filtroak dituztenak, zarata-sortzaileak, inpaktuen makinak, azelerometroak eta bestelako gailuek eskuratzeko moduan direnak. Beren esperientzia egiaztatu beharko dute dagozkion kualifikazio ziurtagirien bidez. Ziurtagiri hauek isolamendu akustikoaren neurketaren, inpaktuen zarata-mailen, kanpoko guneeetako neurketa eta/edo dardaren neurketei buruzko ikastaro praktikoak egin ondoren lortu ahal izango dira eta, ikastaro hauek, akustikaren gaian teknikariak prestatzen gaitasun handia duten entitateak emanak izan beharko dute. Era berean, eta ziurtagiria osatzeko xedez, neurketa errealak, teknikari kualifikatuen gainbegiradapean edo/eta, bestela, gaitutako pertsonak egindako neurketekin konparaketak egin dituztela egiaztatu beharko da.

#### 3. Zehaztasun handiko neurketak.

Neurketen emaitzak Ordenantza honetan ezarritako mugen inguruan daudenean, beharrezkoa izango da prozedura eragile partikular bat erabiltzea, gorabeherak murriztuko dituztenak eta, horrenbestez, emaitzetan zehaztasun handiagoa lortzea erraztuko duena.

## 4 ERANSKINA

### IKUSKATZAILETZARA DATUAK IGORTZEKO PROTOKOLOA

Kontrolerako elementuek bidali behar dituzten datuak ikuskatzailetzan jaso ahal izateko, jarraian deskribatuko diren protokolo normalizatu batzuk jarraituta bidali behar dira.

#### 1. Komunikazio protokoloa:

Kontrolerako elementu guztien datu-bidalketak eta Ikuskatzeko Sistema Automatikoa bateragarri egiteko, beharrezkoa da ematen diren datuak eta sistemari emateko moduak ondoren zerrendatuko diren baldintzak betetzea.

Araudi hau betetzera behartutako jardueretan instalatutako kontrol elementuek gutxienez egunean behin bidali beharko dituzte gordetako datu berriak, transmisiorako GSM sarea erabiliz, zehatzago SMS erabilera. Datuen sekuentzia bakoitzerako jarraian deskribatuko diren protokoloak jarraituko dira, eta SMS mezuaren egitura txertatuta joango dira, horretarako erabiltzailearen datuen esparrua erabilita. Esparru hori «Digital cellular telecommunications system, Global System for Mobile communications (GSM)» deitutako sarea definitu zuen European Telecommunications Standards Institute, ETSI, erakundeak argitaratutako GSM TS 03.38 (V7.0.0), GSM TS 03.40 (V7.1.0) Arauetan dator deskribatuta.

#### 2. SMS baten egitura GSM TS 03.40. arauaren arabera bidaltzeko

Bidaloi behar den mezu baten PDU (protocol description unit) egitura GSM TS 03.40 (V7.1.0) arauaren 9.2.2.1. atalean jasotzen da. Hor ikusten denez, bi elementu-multzo daude: bata mezua transmititzeko eta Sareak identifikatzeko beharrezko datuei dagokiena; bestea erabiltzailearen datuei dagokiena.

TPDU goiburuak ondokoak jasotzen ditu:

- TP-MTI TP: Mezu mota adierazten du.
- TP-RD TP: Zerbitzu zentroak (SC) bikoizkiak onartzen dituen adierazten du.
- TP-VPF TP: TP-VP esparrua dagoen ala ez dagoen adierazten du.
- TP-RP TP: Erantzuteko bidea adierazten du.
- TP-UDHI TP: TP-UD esparruak goiburua duela adierazten du.
- TP-SRR TP: Egoera-txostena adierazten du.
- TP-MR TP: SMS identifikatzen duen parametroa.
- TP-DA TP-: Helbidea.
- TP-PID TP: Protokoloaren identifikatzailea.
- TP-DCS TP: TP-User-Data esparruko kodifikazioaren identifikazioa.
- TP-VP TP: Mezuaren bizi-iraupena.

SMS mezuaren ondoko bitek erabiltzailearen datuak dauzkate, hau da, transmititu nahi dugun mezuaren edukia. Hortaz, SMS mezua ondoko egitura izango du:

$$\text{TPDU goiburukoa} + \text{Erabiltzailearen datuak} = \text{SMS mezua}$$

TPDU goiburukoa mezuaren bidalketaren parametro finkoek osatzen dute, eta erabiltzaileak ezin ditu ikutu mezua sarean zehar transmititzea nahi badugu. Erabiltzailearen datuek, berriz, mezuaren edukari dagozkion karaktereak biltzen dituzte, eta mezua ulertzeko beharrezkoak diren adina ipiniko dira. Mutrikuko Udalaren protokoloa erabiltzailearen datuen gainean definitu behar da.

#### 3. Mutrikuko udalaren Erabiltzailearen datuen Protokoloa

Erabiltzailearen datuak honako ataletan banatzen dira:

- Setup datuak edo berrabiaraztekoak.
- Saioko datuak.

Saioko datuak honako azpiataletan banatzen dira:

- Saio sonografikoko datuak.
- Saio erregistratzaileko datuak.

Datu guztiak bildu eta GSM sarearen SMS erabileraz bidaliko dira, GSM sarearen Arauek deskribatzen dutenez, mezuari emandako espazioa gailuen datuak bidalita, gorago adieraitako moduan. Bilketa honek SMSaren egitura definitzen duten 8 biteko 140 karaktereak erabiliko ditu.

Jasotako mezuen luzerak normalizatzeko 112ko mezu bakoitzarentzat luzera finkoa erabiliko da, eta ondoko itxura hartuko dute transmititu beharreko datu motaren arabera:

Konfigurazio orokorra:

TPDU goiburukoa.

Erabiltzailearen datuak.

Goiburuko deitutako atala GSMko SMS arauaren TPDUk deskribatutako atala da.

Jarraian, sistemaren hitz gakoa agertuko da, datuak bidaltzen dituen ekipo mota, eta ondoren egitura mota, hau da, setup bat den edo saioa den. Azkenik, mezuaren datuak agertuko dira.

Datu mota bakoitzarentzat ondoko egiturak izango dira.

### 3.1. Egitura motak.

— Zati komuna (mezu guztietan izango da).

Hitz gakoa: 8 byte

Ekipo mota: 1 byte

Mezu mota: 1 byte

Ekipoaren kodea: 9 byte

— Goiburuko mezua mugatzailearentzat.

Goiburuko informazioa.

Instalatazailea: 38 byte

Kalibrazioa. Maila 1 byte.

Instalazio eguna:

    Date: 3 byte

    Time 2 byte

Berrikusketa:

    Date: 3 byte

    Instalatazailearen kodea 9 byte

Erregistratazailea 1 byte

Sonometroa 1 byte

Betegarria 0x0034 byte

Mezu zenb. (Balio zirkularra 0tik 255era) 1 byte

— Setup informazioaren mezua.

Isolamendua: 16 byte

NC atalaseak: 1 byte

Mikrofonoak: 16 byte

dBa doitzea: 1 byte

Sentsibilitatea: 1 byte

Kalibrazioa: 16 byte

Betegarria 0x0026 byte

Mezu zenb. (Balio zirkularra 0tik 255era) 1 byte



— Mugatzailearen saioaren mezua, informazio sonografikoa duena.

Saioaren indizea: 2 byte  
Saioaren hasiera data:  
    Date: 3 byte  
    Time 2 byte  
Amaiera: 2 byte  
Kalibrazioa: 1 byte  
Gorria: 1 byte  
Anbarra: 1 byte  
Potentzia altuena: 1 byte  
Erdiko maila: 1 byte  
Gehienezko maila: 2 byte  
Mikrofono ordua altuen: 4 byte  
Mikrofono baxuen: 1 byte  
Betegarria 0x0074 byte  
Mezu zenb. (Balio zirkularra 0tik 255era) 1 byte

— Erregistratzailea duen mugatzailearen saioaren mezua.

Saioaren hasiera data: 5 byte  
Saioaren indizea: 2 byte  
Neurketen tarte: 1 byte  
Erregistratzailearen mezu zenb.: 1 byte  
Erregistratzailearen neurketak mezuko.  
Gehienez, 83 neurketa; gutxiago badago, 0X00 betegarriz beteko da 83 byte arte.  
Mezu zenb. (Balio zirkularra 0tik 255era) 1 byte

### 3.2. Aldagaien esannahia.

Hitz gako: Sistemaren identifikazioa hitz batean emanda. Udalari eskatu behar zaio gailuren bat sistemara gehitu nahi denean.

Ekipo mota: Gailu mota identifikatzen du sisteman. Edukia udalak emango du gehitzea eskatzen denean.

Mezu mota: Mezu mota identifikatzen du. Edukia Udalak emango du sistemara gehitzea eskatzen denean.

Ekipo kodea: Gailuaren identifikazio zenbakia sisteman. Gailuaren serie zenbakia izan daiteke.

Instalatzailea: Instalazioaren berri emateko gordetako esparrua da.

Kalibrazioa. Maila: Ekipoaren kalibrazio maila identifikatzen du (sortzeko gai den gehienezko maila).

Instalazio data: Ekipoa instalatu zeneko eguna eta ordua.

Berrikusketa: Ekipoan sartu izanaren data, eta sartu den instalatzailearen identifikatzailea.

Erregistratzailea: Ekipoak erregistratzailea instalatua duen adierazten du.

Sonometroa: Ekipoak sonometroa instalatua duen adierazten du.

Mezu zenbakia: Mezu zenbatzailearen zenbakia, mezuaren hurrenkera zenbakia adierazten duena.

Isolamendua: Lokalaren isolamenduaren balioa zortziren herenetan.

NC atalaseak: Babestu beharreko espektroa zehazten duen NC bihurtzeko zenbakia adierazten du.

Mikrofonoa: Mikrofonoak zortziren herenetan duen sentsibilitatea adierazten duten zenbakiak.

AjustdBA: Mikrofonoaren kalibrazio zenbakia. Transmittitzen den zenbakia dB(A) bada, 0 izango da.

Sentsibilitatea: Mikrofonoaren sentsibilitate globala.

Kalibrazioa: Mugatzailea jartzen deneko lokaleko musika-ekipoaren gehienezko emisioa identifikatzen duten mailak, zortziren herenetan emanda.

Saioaren indizea: Hasten den saioaren ordena zenbakia.

Saioaren hasiera data: Saioaren hasiera data eta ordua.

Amaiera: Saioaren iraupena. Lau zifra osoko zenbaki gisa biltzen da (4 bit bakoitzarentzat).

Kalibrazioa: Ekipoa abiatzeko kalibrazioaren balioa.

Gorria: Ekipoa lanean egon den denbora.

Anbarra: Ekipoa piztuta egon den denbora.

Potentzia gehienez: Saioan zehar izandako maila altuena.

Erdiko maila: Saioan zehar mikrofonoak neurtu duen soinu-presio maila.

Gehienezko maila: Saioan zehar izandako soinu-presio maila altuena.

Mikrofono ordua altuen gehien: Soinu-presio altuena gertatzen deneko ordua.

Mikrofono baxuen: Saioko soinu-presio baxuena.

Saioaren hasiera data: Erregistratzailearen saioaren hasiera data eta ordua.

Saioaren indizea: Erregistratzailearen saioaren ordena zenbakia.

Neurketen tartea: Laginen arteko denbora tartea.